

4 EURO • 2013KO MAIATZA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

**hh**  
**hik hasi**

**178**



**GAIA: EKI PROIEKTUA • ELKARRIZKETA: JOSEP MARIA ARTIGAL**  
**• PARTAIDETZA (VIII) • EUSKAL KULTURAZ ETA EUSKARAZ HAZIZ**  
**• GALDEIDAZUE: JUAN INAZIO HARTSUAGA**  
**• GASTEIZKO SANTA MARIA KATEDRALA • ALBERTO LADRON ARANA**

**12** URTETIK  
AURRERA**LABARREKO  
ITSASARGIA****OIHANE FERNANDEZ  
ALEX ORBE**

Etxeke istiluetatik urruntzearren Ania itsasertzean bizi den osabarenera bidali dute gurasoek, izan ere farozaina da osaba Giuseppe.

**12** URTETIK  
AURRERA**NIRE ALABAK EZ  
DAUKA ERREMEDIORIK****ANTXIÑE MENDIZABAL  
MORKOTS**

"Nire amak ez dauka erremediorik" liburuaren jarraipena da honako hau. Ama-alabaren arteko harremanei buruz hitz egiten jarraitzen du istorio honek.

**10** URTETIK  
AURRERA**ORKESTRA  
LURTARRA****HARKAITZ CANO  
JOKIN MITXELENA**

Bremengo musikarien antzera, orkestra bat sortu nahi du Manu, eta horretarako musikari bila hasiko da.

**8** URTETIK  
AURRERA**BI SAGU  
POLTSIKOAN****MICHEL VAN ZEVEREN**

Sisi txango batera joango da eskolako lagunekin, lehenengo aldiz. Beldur pittin bat du ordea. Gurasoei proposatzen die berarekin joatea; baina, noski, ezinezkoa da.



**XAGUXAR BILDUMA ERABERRITUA,  
INOIZ BAINO KOLORETSUAGO,  
BETI BEZAIN DIBERTIGARRI**

**elkar**

[www.elkarargitaletxea.com](http://www.elkarargitaletxea.com)

# aurkibidea



**10**  
gaia

## EKI PROIEKTUA

2008an onetsitako Euskal Curriculumaren garapenarekin “doitua” eta “koherentea” den ikasmateriala sortu dute Ikaslar argitaletxeak eta Ikastolen Elkarateak elkarlanean DBHrako. EKI proiektuak ikaslearen irteera-profilean ardatz duen curriculum du “ipar eta gailur” eta kompetentzietan oinarritutako kontzeptzio didaktikoaren aldeko hautua egiten du.



**16**  
elkarrizketa

## JOSEP MARIA ARTIGAL

Irakasle eta editore katalanarentzat, “zenbat” hizkuntza edota “noiz” irakatsi baino garrantzitsuagoa da “nola” irakasten den. 35 urte daramatza umeei ama-hizkuntzaz besteko hizkuntzak irakasten. Euskararen mundura ikastolen eskutik sartu zen, duela 21 urte.

**5** editoriala

**6** hizpide izan da

**8** hizpide izango da

**10** gaia

**EKI PROIEKTUA** Hezkuntza-paradigma berri baterako tresna

**16** elkarrizketa

**JOSEP MARIA ARTIGAL** bigarren hizkuntzen irakaskuntzan aditua

**23** PARTAIDETZA (VIII)

**30** esperientziak

Curriculumaren ikuspegi berritzailetatik, euskal kulturaz eta euskaraz haziz. ELKAR HEZIKo Hezkuntza Komunitatea

**34** galdeidazue

Zer ekarpen egin dakiok euskal curriculumari mitologiaren alorretik? Juan Inazio Hartsuaga

**40** nora joango gara?

**Gasteizko Santa Maria Katedrala** Lurpeko txoko sakonenetik, hiriaren talaiara

**42** Atzeko atetik

**Alberto Ladron Arana.** Idazlea

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofii, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Uxue Ugartemendia. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Tema Garzia. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2013-04-19). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



# Eman diezaiogun hezkuntzari garrantzia



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
harpide zaitetz!  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan,  
jardunaldietan eta argitararaten  
ditugun gainontzeko materialetan

**hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz**

<b>Izena</b>	<b>1. Deitura</b>
<b>2. Deitura</b>	<b>Telefonoa</b>
<b>Helbidea</b>	<b>Posta Kodea</b>
<b>Herria</b>	<b>Herrialdea</b>
<b>Lantokia</b>	<b>Lantokiaren herria</b>
<b>IFZ-NAN</b>	<b>Posta elektronikoa</b>

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala maiatza

## *Euskara, administrazioak eta herri ekimena*

Euskal Herri osoan, euskarazko irakaskuntzak aurrerapen handia egin badu ere, haren normalizazioa lortzea ez dela hain erraza izango, dirudi. Azken aldian, hori adierazten duten hainbat adierazle argitaratu da.

Nafarroako datuak eman ditu *Berria* egunkariak —Gobernuak ez baititu publiko egiten—, eta susmoak baieztatu ditu: D ereduek goia jo du lurralde horretan. Eta, halaber, erakusten dute lurraldea hiru hizkuntza-eremutan banatzeak izugarri oztopatzen duela euskaraz ikasi ahal izatea. Administrazioak mugatu egiten ditu nafarren hizkuntza eskubideak, eta mugatu egiten du, baita ere, euskararen beraren garapena. Hango eremu ez euskaldunean, ikastoletan soilik ikas liteke euskaraz. Gainera, administrazioaren eskoletan eskolatzeko hautua egiten duten 1.400 ikasle beste herri batera mugitzera behartzen ditu. Hori gutxi balitz

bezala, ingelesaren irakaskuntza euskararen normalizazioa oztopatzeko erabiltzen da, bide bata eta bestea kontrajarriz. Errealitatea, ordea, beste bat da: ingelesa, euskararekin batera ikas daiteke, noski, hango ikastolek aspaldi erakutsia duten eran.

Iparraldeari dagokionez, Ikas-bi elkar-teak egin duen informean agertzen denaren arabera, euskaraz irakasteko traba ugari jartzten ditu administrazioak bere eskoletan euskaraz ikasi ahalizateko. Administrazioaren aldetik, “euskara sustatzearen aurrean, aurkako jarrerak eta aihergatasunak gora egin dute”, dio txostenak. Eta, jakina da ikastolek ere ez dutela batere erraz administrazioarekikoa.

Administrazioen zain egon gabe, herri ekimenez eraginda, ikastola berriak sortu dituzte Ziburu, Lekorne, Itsasu eta Arberoan aurten, eta datorren urtean sortuko dute Beskoitzen. Euskara ez litzateke dagoen

**Euskara ez litzateke dagoen egoeran egongo herri ekimenez sortutako hainbat eragileren ekarpenik gabe. Administrazioen zain egon gabe, herri ekimenez eraginda, ikastola berriak sortu dituzte Ziburu, Lekorne, Itsasu eta Arberoan.**

egoeran egongo herri ekimenez sortutako hainbat eragileren ekarpenik gabe.

Baina funtsezkoa da herri ekimena eta administrazioen erabakiak norabide berean joatea. Azken urteotan ikusi dugunez, administrazioen jarrerak eta erabakiek eragin handia dutela hizkuntzen normalizazioan. Izan ere, euskara egoera gutxiagotuan egonda, bere alde ez egitea —berariaz eta diruz lagundurik— bere kontra egitea da.

**hik hasi komunikabideak Lander Arbelaitz Argiako kazetariak Aske-Gunean jasan zuen tratua salatu nahi du eta, Hekimeneko kide gisa, bat egiten du honako adierazpen honekin:**

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak elkartasuna agertu nahi dio Lander Arbelaitz Argia aldizkariko kazetariari, Aske-Gunea hustutzeko operazioaren barruan jasotako tratua dela eta.

Hekimeneko kide sortzaileetako bat da Argia aldizkaria, eta Hekimenen helburuetako bat da euskal hedabideen presentzia eta eragina handitzea gizartean. Horretarako, ezinbestekoa da gero eta informazio kalitatezkoagoa eskaintzea. Hekimenen ustez, Lander Arbelaitz informazio zuzena emateko ahalegin betean ari zen Ertzaintzak, eskuan zeukan akreditazioa kon-tuan hartu gabe, lurrera bota, astindua eman eta bertatik atera zuenean.

Hekimenek, gainera, guztiz ezegokitzat jotzen du Ertzaintzako buruek hartu zuten erabakia kazetariak gune itxi eta bereizi batean zedarritzeko. Kazetarien oinarritzeko eskubideetako bat da informazioa ahal bezain hurbilen eta, batez ere, nahi du-ten ikuspuntutik eman ahal izatea. Hori da kazetaritza. Hori da gure lana.

# hizpide

## Ipar Euskal Herriko irakaskuntza elebidunaren egoerari buruzko txostena egin dute, hura sortu zenetik 30 urte igaro direlarik

Duela 30 urte, 1983ko apirilean, Saran, lehen aldiz atal elebidun bat sortu zen Ipar Euskal Herriko Hezkuntza Zerbitzu Publikoan. Urtemuga horren kariz, irakaskuntza elebidunari buruzko txostena egin du Ikas-bik. Atzera begira, Hezkuntze Nazionalaren administrazioak, irakasle batzuek, bai eta hautetsi batzuek ere euskaraz irakasteari ezarri dizkioten oztopoak gogoratzen ditu txostenak, “euskaraz sustatzearen aurrean, aurkako jarrerak eta aihergatasunak gora egin dute”, txostenaren

aren arabera: “Azterketa soziolinguistikoak erakusten duenez, 2006 eta 2011 bitartean, euskararen irudia narriatu egin da gizartean ‘euskararen sustapenari’ eta ‘gara dezaten bultzatzeari’ dagokionez”. Bestetik, oztopo horien aurrean irakasleek izan duten adorea nabarmentzen.

Txostenaren ondorio gisa Euskararen Erakunde Publikoak irakaskuntza publikoan eskumenik ez edukitzeak ondorio latzak dituela nabarmentzen du: “Euskal Herriko lurraldearen bilakera linguistiko-

aren analisia asaldagarria da —irakur liteke txosteneko ondorioetan—, euskararen etorkuznari dagokionez. Familia barruko transmisioa ez dago bermatua eta eskolak ustez jokatu behar zuen eginkizuna matxuratuta dago”. Frantziako Hezkuntze Nazionalak 2007az geroztik irakaskuntza publiko elebidunaren eremuan atzera egin duela salatzen du txostenak. Eskola-instituzioarekin eta haur-eskolen sektorearen ez ezik, familia barruko transmisioan ere ahuldadea antzematen du Ikas-bik.

## Jaurlaritzako Heziketa Berezien eta Laboralen Negoziazio Mahaia ireki dezaten aldarrikatu dute



Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Heziketa Berezia eta Irakasle Laboralak Negoziazio Mahaia ireki dadin, protesta-ekimena egin zuten LAB, EILAS eta STEE-EILAS sindikatuetakako ordezkariek Lakuan. Hamar urte daramatzate lan hitzarmena berritu gabe. 2011ko apirilaren 14an aurreakordio bat sinatu zuten sindikatuek eta Jaurlaritzak, baina administrazioak sinaturikoari uko egin zion eta bertan behera utzi zuen hitzarmena. Aurtengo urtarrilean, hiru sindikatuek negoziazio mahaia irekitzeko eskatu zioten administrazioari, eta Jaurlaritzak adierazi zuen apirilaren 18a baino lehen Negoziazio Mahaia martxan jartzeko data emango zuela, baina hori horrela izan ezenez, egun horretan bertan, hiru sindikatuetakoa negoziazio mahaiko partaideek protesta egin zuten Lakuan, eskari argi batekin: data bat jartzea negoziazioak hasteko, eta hamar urteko geldialdi bukatzeko.

# izan da



## D ereduko matrikulazioak goia jo du Nafarroan

Nafarroan D ereduan ikasten ari diren ikasleen portzentaiak ez du ez aztera ez aurrera egin azken urteotan. % 25 inguruan dago egonkortuta D eredu lurralde horretan. Haatik, Euskararen Legeak ezartzen dituen hiru eremuetako portzentaien artean alde handiak daude: eremu euskaldunean, ikasleen % 88 ari dira D ereduan; eremu mistoan, % 29,1; eta eredu ez euskaldunean, % 5. *Berria* egunkariak eman ditu datuok ezagutzera, 2011-2012 ikasturteko datu ofizialetan oinarritutako azterketa bat iturri gisa baliatuz.

Eremu euskaldunean, hamar ikasletatik ia bederatzik ikasten dute D ereduan; % 7, 8k A ereduan ikasten dute —euskara ikasgai gisa dute—, eta erdara hutsezko G ereduak ez du lekurik. Eremu mistoan, datuak ezberdinak dira sare publikoko eskolatan eta itunpeko sarekoetan. Sare publikoan D eredu da nagusi (% 42), baina itunpekoan % 15ek baino ez du ikasten eredu horretan. Itunpeko sarean G eredu da nagusi (% 67), eta datu orokorrak hartuta ere, G eredu da indartsuena (% 45,3). A ereduan % 19,3 ari dira.

Eremu ez euskaldunean, gaztelania da nagusi. Eskola publikoetan ez dago D ereduaren eskaintzarik, eta euskaraz ikasi nahi dutenek ikastolara jo behar dute. Ikasleen % 4,6 ari dira Haur eta Lehen Hezkuntzan D ereduan. Bostetik batek (% 19,3) euskara ikasgai gisa du A ereduan. Haatik, bostetik hiru (% 61,7) G ereduan ari dira.

*Berria*-k galdekatutako hezkuntza eragileen iritziz, badira D ereduaren geldialdia azaltzen duten hainbat faktore. Horietako bat, ingelesa sustatzearen alde Nafarroako Gobernuak egindako apustua. “Ingelesa indartzen ari da elebistasuna bultzatzeko, baina, bidez batez, euskararen igoera geldiarazteko”, adierazi du Pello Mariñelarena Nafarroako Ikastolen Elkarteko lehendakariak. Iritzi horrekin bat dator Gari Torregrosa Sortzen Ikasbatuazeko kideak. Aitor Etxarte NIZE elkarteko ordezkariaren ustez, euskarazko ereduaren aldeko diskurtsoak goia jo du. “Orain 30 urteko diskurtsoarekin ari gara eta horrek batzuentzat soilik balio du. Arazoak ditugu diskurtsoaren idearioarekin identifikatzen ez direnekin”.



## LOMCEren aurka, kalejira jendetsua

*Murrizketen aurrean eta Werten lege erreformaren aurrean, kalera atera ziren guraso, ikasle eta irakasleak, apirilaren 20an, kalejiran. ELA, LAB, STEE-EILAS eta CCOO sindikatuak, Sortzen-Ikasbatuazek eta Hik Hasik bat egin zuten deiarekin.*

## Nafarroako historiari buruzko curriculumaldatzea eskatu dute

*Apirilaren 11n, Nafarroako Parlamentuan, Nafarroako Historiaren Curriculumaldatzearen aldeko mozioa aurkeztu zuten Aralar-NA-Bai eta Bildu taldeek; alabaina, PSN, UPN eta PPN taldeen kontrako bozkekin errefusatu izan zen. Mozio horretan eztabaida historiografikoak aspalditik gainditu dituen puntuak curriculumean aldatzea eskatzen dute, hala nola, “berdinen arteko batuketa” edota “patu unibertsa” bezalako argumentazioak kentzea eskatzen zuten.*

# hizpide



## Hamalagarren urtez, Udako Topaketak antolatu ditu hik hasi-k, uztailaren 3an, 4an eta 5ean

hik hasi-k hamalagarren urtez antolatu ditu Udako Topaketa Pedagogikoak, EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailarekin batera. Irakasle, ikasle, hezitzaile, guraso eta, oro har, heziketan interesa duen edonorengan pentsatutako 21 ikastarok osatutako egitarau zabala izango dute topaketek aurtan, eta uztailaren 3an, 4an eta 5ean egingo dira Donostian (EHUko Pedagogia fakultatean eta Ekintza ikastolan). Hala ere, ikastaroak eskaintzeko ez ezik, beste behin hainbat arlotako irakasleak elkartzeko, esperientziak trukatzeko eta hausnarketak, ideiak, proiektuak eta berrikuntzak plazaratzeko gunea izateko asmoarekin antolatu ditu hik hasi-k Udako Topaketak. Askotariko gaiet buruzko ikastaroak izango dira: psikomotrizitatea, Pikler-Lóczy institutuko hezitzaile-eredua, etxerako lanak eskoletan, elkarrekin era sortzaile eta kritikoan pentsatzen ikasi, kultur aniztasunean ikasi eta irakatsi, 'coaching'-a, haurrentzako masajea, espresio tailerra, ahotsaren erabilera egokia...

Izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 31a arte, hik hasi-ren webgunean ([www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)). Ikasle kopuru mugatuko ikastaroak direnez, izen-ematearen ordena hartuko da kontuan.

Denok bizi dugun egoera ekonomiko zail honetan ikastaroetan interesa duen edonoren parte-hartzea errazte aldera, %20 merketu du hik hasi-k ikastaroen matrikulazioa. Halaber, hik hasi eta hazi hezi aldizkarietako harpidedunek eta langabetuek prezio bereziak izango dituzte.

## LOMCEren aurrean, Euskal Herriak dituen hezkuntza beharrei buruz hausnartzeko, jardunaldiak

Iruñeko Iturrama inositutuan egingen ari dira LOMCEri buruzko jardunaldiak, LAB sindikatuak antolatuturik. Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen LOMCE erreforma indarrean jartzeak zer ekarriko lukeen aztertuko dute jardunaldi horietan, alde batetik, eta, bestetik, Euskal Herriko hezkuntza premiak zien diren eta premia horiek asetzeko zer alternatiba eraiki daitekeen hausnartuko dute. Alternatiba horri lau oinarri ezarriko dizkiote: hizkuntzen tratatara, curriculum eta pedagogia; parte hartzea eta aukera berdintasuna

Maiatzaren 8an parte hartzeari buruz mintzatuko dira Santiago Alvarez, Antxon Barbiera gaztelaniaz, eta Gari Torregrosa eta Unai Ekiza euskaraz. Maiatzaren 16an pedagogia eta curriculum izango dituzte hizpide. Lehen saioa Alfredo Hoyuelos UPNAko irakasleak eskainiko du gaztelaniaz, eta bigarrena, euskaraz, Abel Ariznabarreta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko Hezkuntzako Zuzendariak. Akzen saioa Nerea Agirre Huheziko irakasleak eskainiko du Aukera berdintasunari buruz.

Saio guztiak, arratsaldeko 17:30etik 19:30ak arte izango dira.



# izango da

## Herri Urratsek 30 urte beteko ditu maiatzaren 12an



“Hogeita abar urte” leloarekin ospatuko du Herri Urrats jaiak bere 30. urteurrena. Lehen jaia Kanboko Nere Pentzea etxea erosteko egin zuen Seaskak, eta han eraikitzeko Xalbador kolegioa. Maiatzaren 12an ospatuko da Iparraldeko ikastolen festa, ohi bezala, Senperen. Alain Boscq Herri Urratseko lehendakariaren iritziz, “aurtengo urtemuga jauzi handi bat emateko” baliatu behar dute, besteak beste, bide erdian agertzen zaizkien arazoengainetik, “ikastola gehiago sortzeko, euskaldun gehiago hezitzeko, gure hizkuntzak iraua dezan”. Aurtengo urteurrena ospatzeko kantua Xutik Iparraldeko taldeak egin duela. Abestiak Seaska, Herri Urrats eta euskararen balioa nabarmentzen du bere letretan.

Sortzen Ikasbatuaz aurtengo jai nazionala bi egunekoa izango da. Maiatzaren 18an, larunbata, Txantrean ospatuko dute jaia, eta bertan urte hauetan guztietan egin duten ibilbidearen erreposoa egin eta ospatuko dute. Hurrengo egunean Takoneran egingo dute jaia; ikasturte osoko gogoeta

prozesuaren ispilu izango da. Aurrera begira dituzten erronka berrien lanketa irudikatzen hasteko eguna izango da.

Hurrengo asteburuan Ibilaldia ospatuko da Portugaleten, “Aldapa leunduz” izenburupean. Bizkaiko ikastolen jaia ospatzeaz gain, Astileku ikastolak bere 50. urteurrena ospatuko du jai horren bidez.

Euskal Eskola Publikoaren jaia ekainaren 2an ospatuko dute Murgia-Zuian (Araba), “Haziak indartu” lelopean. Aurtengo festaren bidez, landa-eremuko ikastetxeen errealitatea erakutsi nahi dute bereziki.

Jarraian, ekainaren 9an, Gipuzkoako Eskola Txikien Festa izango da Olaberrian. Eskola txikien adierazgarri den hezkuntza eredu ezberdinaren aldarrikapena egingo dute festa-egunean, eta jaia bitartean egingo dituzten ekitaldi ugarietan.

Ikasturte honetako azken jaia Amurrión ospatuko da, han izango baita Araba Euskaraz, ekainaren 16an. Aresketa ikastolak antolatuko du festa.

## 0-3 urte bitarteko formazioa eskainiko du hik hasi-k datorren ikasturtean

Datorren ikasturtean, irailarekin, 0-3 urte bitarteko hezitzaileentzako prestakuntza berria eskainiko du hik hasi-k. Bi ikasturteko formakuntza izango da, 200 ordutik gorakoa.

Hiru oinarri nagusi izango ditu hezitzaileei eskainiriko prestakuntzak: hasteko, Emmi Piklerren eta mugimendu askearen pedagogian sakonduko da, Juanjo Quintelak koordinaturiko saioretan. Alfredo Hoyuelos NUPEko irakasleak Loris Malaguzziri buruzko atala koordinatuko du. Hirugarren zutabea formakuntza pertsonalak osatuko du, Alvaro Beñaranek koordinaturikoa. Ikaslerro bakoitzean, gaian aditua den Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek eskainiko dute ikastaroa.

Formazioa presentziala izango da, nagusiki, Donostian. Informazio osoa eta izena emateko aukera ekainean izango da hik hasi-ren webgunean: [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)



# GAIA

## EKI proiektua

*Hezkuntza-paradigma berri baterako tresna*



EKI proiektua hezkuntzako profesional, agintari eta adituei aurkeztu zieten apirilean, Gasteizko Europa Jauregian.





**2008an onetsitako Euskal Curriculumaren garapenarekin “doitua” eta “koherentea” den ikasmaterial berria sortu dute Ikaselkar argitaletxeak eta Ikastolen Elkarteak elkarlanean DBHrako. EKI proiektuak ikaslearen irteera-profilean ardatz duen curriculum du “ipar eta gailur”, kompetentzietan oinarritutako kontzeptzio didaktikoaren aldeko hautua egiten du, euskal curriculumeko eta curriculum ofizialetako kultur edukiak uztartzen ditu, prozedura diziplinar eta metadiziplinarraren lanketa proposatzen du eta hizkuntzen curriculum integratua sustatzen du. Oinarritzko kompetentzien garapenaren bidez ikasleak bizitzako egoera eta eremu guztietan eraginkortasunez jarduteko prestatzea da EKI proiektuaren helburua.**

# G



Datorren ikasturtean hasiko dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako EKI proiektuak sortutako ikasmaterialak erabiltzen hala eskatzen duten ikastetxeetan. Tresna berriaren inplementazioari begira, irakasleentzako prestakuntza saioak antolatuko ditu Ikaselkar argitaletxeak datozen hilabeteetan, eta aholkularitza eta laguntza eskainiko die ikastetxei. Horren aurretik, ikasmaterialak hezkuntzako profesional, agintari, espezialista eta adituei aurkezteko, lau egunez agerraldiak egin dituzte Ikaselkar argitaletxeak eta Ikastolen Elkarteak Gasteizen. EKI proiektuaren bereizgarri nagusiak eta oraingoz berau osatzen duten sei ikas-arloetako (Matematika, Lengua Castellana y Literatura, Euskara eta literatura, English, Gizarte zientziak eta Naturaren zientziak) materialen xehetasunak azaldu zituzten Xabier Garagorri eta Mikele Aldasoro egitasmoaren zuzendariek Europa Jauregian.

47 hezkuntza-profesionalek sortu eta 23 ikastetxetako 226 irakaslek, alde aurretik egin duten esperimentazioaren bidez, balioztatu dute EKI proiektua. 2008 eta 2009n Euskal Herriko ikastetxe gehienek elkarrekin eraiki eta onetsitako Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculumaren harira sortutako egitasmoa da EKI, eta hezkuntza-proiektu baten zerbitzura dago, Xabier Garagorri Gasteizko aurkezpenaren azpimarratu zuenez. “Ikasmaterialak ez dira neutroak, hezkuntza paradigma bat dute atzean”. EKI proiektua hezkuntza-paradigma berri baterako tresna “doitu eta koherentea” dela esan zuen. “Lehen ere Euskal Curriculum lantzen genuen ikasmaterialetan, baina EKI proiektuaren bidez era sistematikoan eta hezkuntza eragileekin adostu dugu zer dugun eta zer eduki nahi dugun elkarrekin Euskal Herrian bizi garenek, bi estatu eta hiru administrazioetan banaturik egon arren”.

EKIk dakarren berritasunaren garrantzia eta erronka nabarmendu zituen Garagorri. “Hezkuntza-eredu berri batez ari

gara, eta berrikuntzak ez dira batere errazak izaten. Aldaketak egiteko lehen baldintza borondatea da. Hemen badago. Kompetentzietan buruzko hitzak maiz entzuten ditugu, musika polita da, baina horiek gauzatzea ez da hain erraza; diskurtso teoriko asko dago, baina gauzatze praktikoa zehatzik ez hainbeste. Gurea saiakera bat da bide horretan, eta erronka bat dugu. Borondateaz gain, ahalmena ere behar da, eta ahalmena gartzeko, denbora. Guk ikasmaterialak eskaintzen ditugu, eta nire esperientziatik esan dezaket zerbait baldin badago aldaketarako eta berrikuntzarako egingarria, hori ikasmaterialak direla”.

Garagorri uste du EKIk planteatzen duen irteera-profilean oinarritutako curriculumaren bideak aurrera egiten badu, antolaketan aldaketa handiak ekarriko dituela ikastetxeetan. “Oinarritzko Hezkuntza osotasun bezala ikusi beharko dugu, ez une honetan ikusten dugun bezala: DBH-LH-HH. Ekimen guztiak gailur horretara bideratzeko ahaleginean jarri beharko dira, eta horrek barneko antolaketan, barneko egitura guztian eragina izango duela sinesten dut”.

### Oinarritzko gaitasunak, ipar eta gailur

Bost dira Euskal Curriculumaren eta EKI proiektuaren hezkuntza-eredu berriaren bereizgarri nagusiak.

Batetik, ikaslearen irteera-profilean oinarritutako curriculum jartzen du helburu gisa, eta horretarako oinarritzko kompetentziak hartzen ditu “ipar eta gailur” modura. Bizitzarako ezinbestekoak diren eta bizitzako egoera guztietarako baliagarriak diren kompetentzia orokorrak edo metadiziplinarrak zehazten ditu, oinarritzko hezkuntza osoko irteera-profilearen giltzarri gisa. Honako hauek dira oinarritzko gaitasun horiek: ikasten eta pentsatzen ikasi; komunikatzen ikasi; elkarbizitzen ikasi; norbera izaten ikasi; egiten eta ekiten ikasi. Oinarritzko kompetentzia horiek “ezberdinak dira, baina batera doaz”, azaldu zuen Garagorri.

# EKI proiektua

Halaber, oinarrizko gaitasun horiez gain, badira ikas-arloekin lotutako beste kompetentzia batzuk: hizkuntza eta literatura; musika eta dantza; plastika eta ikus adierazpena; gorputz hezkuntza; matematika; teknologia; naturaren zientziak; eta gizarte zientziak. “Oinarrizko kompetentzia hauek ez dute izaera propiorik, ezin dira ebaluatu baldin eta ez badira lantzen arloen bidez. Oinarrizko kompetentzia orokorrak arlo guztietan uztarturik garatzen dira, eta alde-rantziz, oinarrizko kompetentzia espezifikoak garatzeko gaitasun orokorrekin uztartu behar dira. Prozesu horren bidez lortzen da Europak oinarrizko kompetentzietan eskatzen duena betetzea”, azaldu zuen Garagorrik.

Bigarrenik, Euskal Curriculumaren kultur ibilbidean oinarrituta dago EKI proiektua. Hortaz, ikasmaterialetan dimentsio ezberdinak uztartzen ditu: dimentsio europar eta unibertsala (ikasleak Euskal Herrian eta munduan bizitzeko prestatu behar ditu); curriculum ofiziala, derrigorrezkoa; berariazko Euskal Curriculum oinarrizko eta komuna (EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria kontuan hartzen dituenak); eta lekuan lekukoa.

Zertarako (hezkuntza eredua) eta zer (Euskal Curriculum) irakatsi ez ezik, nola irakatsi ere garrantzitsua da. Integrazioaren pedagogiaren aldeko hautua egin du EKIk. “Oinarrizko kompetentziak praktikara eramateko saiakera handia egin dugu lehen aldiz. Edukiak baliabide gisa eta funtzionaltasun batekin landuko ditu ikasleak, bizitzan erabiltzeko. Hori oso urrats handia da”, Garagorriren hitzetan. Ikaslea bizitzako egoera eta eremu guztietan (pertsonalean, sozialean, lanekoan, akademikoan...) eraginkortasunez jarduteko prestatzea da helburua. Horretarako, ikasleak ezagutzak (kontzeptuzkoak zein prozedurazkoak) barneratzea beharrezkoa da, baina ikuspegi akademikoa ez da nahikoa EKI proiektuaren pedagogo-



Mikela Aldasoro eta Xabier Garagorri, EKI proiektuaren zuzendariak.

en iritiz. Halaber, ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren eragile nagusia izatea eta era aktiboan jardutea eskatzen du, ikuspegi eraikitzailea barneratzen du, baina hori ere ez da nahikoa. Kompetentzietan oinarritutako curriculumaren ikuspegitik, ikasleak dituen ezagutza akademikoak eta ikasteko prozedurak modu integratu batean eta era guztietako egoeretan mobilizatzea eta transferitzen ikastea da EKI proiektuaren bereizgarri nagusia. “Integrazioaren pedagogian, ikuspegi sozio-eraikitzailea lehenesten da”, azaldu zuen Garagorrik: “Ikaskuntzaren dimentsio soziala barneratzen du (ikasleak lankidetzan ikasten du), ikaskuntzaren dimentsio eraikitzailea (ikasleak ezagutzen duenetik abiatuz, ezagutza berriak eraikitzen ditu), eta ikaskuntzaren dimentsio interaktiboa (ikasleak testuinguru eta bizitza eremu jakin bateko egoeretan jardunez ikasten du). Hirugarren dimentsio horretan dago EKIn ekarpen berritzailetako bat”.

Prozedura metadiziplinarrak arlo guztietan integratzen dituen curriculumak da EKI proiektuaren laugarren bereizgarri na-

gusia. “Gure hautu pedagogikoa kompetentzietan oinarritutako hezkuntza denez, ‘egiten eta ekiten ikastea’ jarri dugu gure prozedura metadiziplinarren proposamenaren erdigunean. Egiten eta ekiten jakiteko, jakina, ikasten eta pentsatzen jakin behar da, informazioa jasotzen, ulertzen eta baloratzen jakin behar da, ideiak sortzen jakin behar da, baina baita elkarrekin bizitzen eta norbera izaten ere”. Hortaz, EKI proiektuko ikasmaterialetan, oinarrizko gaitasun bakoitzaren urratsak eta etekinak zehaztu dituzte, eta ikas-arlo guztietan uztartu dituzte. “Oso ekarpen interesgarria iruditzen zaigu, oinarrizko kompetentzia metadiziplinarrak uztartzeko prozedura metadiziplinarrak tresna oso garrantzitsuak dira”.

Azkenik, euskara ardatz hartuta, elea-niztasuna bideratu eta IKT kompetentzia arlo guztietan integratzen duen curriculumak bultzatzen du EKIk. “Komunikazioa oso esparru berezia da, eta oso inportantea. Komunikazioaren bidez adierazten ditugu beste elementu guztiak: pentsatzen dakigula, elkarrekin bizitzen dakigula, arloetako ezagutza... Baina aldi berean, horiek bide-

## Ikasmateriala, paperean eta digitalean

### Ikaslearen liburu inprimatua.

Unitate didaktikoak jasotzen dituen ikasmateriala.

**Jarduera-fitxak.** Unitate didaktikoetako jarduerak eskatzen dituzten adierazpenak eta ariketak egiteko euskarria.

**Portafolioa.** Ikasleak unitate didaktiko bakoitzean egingo dituen fitxak eta lanak jasotzeko baliabidea.

**Lan-koadernoak.** Ariketa sistematikoen multzoa eskaintzen duen ikasmateriala.

**EKIgunea.** Proiektuaren webgunea: audioak, bideoak, animazioak, irudiak, jarduera osagarriak, konpetentzia digitala lantzeko fitxak, informazio-testua.

### Irakaslearen gidaliburua.

Diseinu kurrikularraren ezaugarriak eta curriculumaren garapenerako hiru zehaztapen-mailak jasotzen dituen liburua.

**Liburu digitala.** Unitate didaktikoak jasotzen dituen ikasmateriala (zoom eta web bertsioak): audioak, bideoak, animazioak, irudiak, informazio-testuak, jarduera osagarriak, konpetentzia digitala lantzeko fitxak, jarduera-fitxak, irakaslearen gidaliburua.

ratzeko bidea ere komunikazioa da. Azken batean, ibaiak ura darama baina ubide bat dauka. Ubide hori da komunikazioa. Prozedura metadiziplinarretan ez dugu komunikaziorako atal bat sortu, baizik eta oinarriko konpetentzia bakoitzean txertatuta dago modu transbertsalean.

Elementu guztiak uztartzen ditu, eus-

## “LOMCEk dioena jasotzen du, eta gehiago ere bai”

EKI proiektua Espainiako Gobernuak LOMCEren bidez ezarri nahi duen hezkuntza erreformaren espirituarekin nola uztartzen den galdetu zioten Xabier Garagorri, Gasteizko Europa Jauregian egindako aurkezpenean. Bien arteko ezberdintasunak “begibistakoak” direla erantzun zuen, baina hala ere, EKIk LOMCEren ideia nagusiak jasotzen dituela zehaztu zuen. “Ikaslearen irteera-profilari dagokionez, LOMCEk ez du LOEko planteamendua aldatzen. Elkarbizitzari ematen diote garrantzi handiena, baina LOMCEn irteera-profila oinarriko hezkuntzaren funtzio nagusi batean zentratzen da: lan mundurako prestatzea. Gure planteamenduan ez dugu esaten ezezkorik, hori ere badago gurean, baina baita elkarrekin bizitzeko eta bizitzaren egoera pertsonal eta sozialari aurre egiteko gaitasuna ere. LOMCEren planteamendua izugarri murriztailea iruditzen zaigu; guk hori jasotzen dugu, eta gehiago ere bai”.

Euskal Curriculumaren kultur ibilbidean oinarrituta egoteak ere ez luke arazorik sortu behar. “Jakin badakigu hezkuntzaren funtzioa gizarteratzea eta elementu komunak sortzea dela. Curriculumaren funtzioa hori da. Haiek euren lekutik ikusten dute, eta guk guretik. Noizbait hasiko balira esaten zein den Espainiako curriculum berariazkoa, eskertuko nuke, a ze lasaitasuna hartuko luketen beraiek eta guk!”, esan zuen Garagorrik. “Gai honek ere badu bere mamia Extremaduran, Andaluzian edota Murtzian, han ere badituzte berariazko curriculumak. Hortaz, lasaituko nintzateke noizbait iritsiko balira behetik gorako planteamendu batera: komunitate bakoitzak esan dezala curriculumari dagokionez zeintzuk diren berariazkoak, eta beharbada behetik gorako ibilbide horretan aurkituko ginatke; azken batean, curriculumaren portzentaia handi-handi bat komuna da, unibertsa delako”.

Bestalde, oinarriko konpetentzien alorrean “kontraesan handia” ikusten du LOMCEn. “Oinarriko konpetentzia tronkalak eta espezifikokoak bereizten dituzte. Batzuk lehen mailakoak eta besteak bigarren mailakoak al dira? Batzuk besteak baino inportanteagoak al dira? Niretzat, ikaragarriko kontraesana da, oinarriko konpetentzia guztiak direlako bizitarako ezinbestekoak”.

Azkenik, LOMCEren hautu pedagogikoarekin inguruko zalantzak agertu zituen Xabier Garagorrik. “Beldur naiz hartuko duten hautu pedagogikoa ez dela izango konpetentzietan eta integrazioan oinarritutakoa, estandarretan oinarritutakoa baizik, helburu operatiboetan eta abar”.

kara ardatz duela: komunikazio digitala, hizkuntzen curriculum integratua...”. Hizkuntzak eta literatura arloko oinarriko konpetentziak eta arloko konpetentziak hiru eletrako (euskara, gaztelania, ingelesa) komunak dira, eta hirurak modu osagarrian dihardute. Eta bestetik, konpetentzia linguistikoaren eta konpetentzia digitalen ga-

rapena ikas-arlo guztietan integratzen da, beste oinarriko konpetentzia orokorrak bezala. “Lehen aldia da IKTko konpetentzia arlo bakoitzaren konpetentziaren zerbitzura jartzen dela, eta aldi berean, arloaren lanketak IKTko gaitasunari ere ekarpena egiten dio”, nabarmendu zuen Xabier Garagorrik.

# EKI proiektua

## EKI PROIEKTUAREN SEI IKAS-ARLOETAKO OINARRIZKO KOMPETENTZIAK

### LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA / EUSKARA ETA LITERATURA / ENGLISH

**Oinarrizko kompetentzia: kompetentzia komunikatiboa.** Ikaslea gai da, bere bizitzako hainbat eremutan, egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko zein idatzizko hizkuntzaren erabilera egokia eta eraginkorra egiteko: euskaraz (B2) beste hizkuntza ofizialean (gaztelania edo frantsesa) (B2) eta nazioarteko komunikaziorako hirugarren hizkuntza batean (B1). Era berean, badu kultura literarioa, Euskal Herrikoa nahiz unibertsala, inguratzen duen mundua eta bere burua hobeto ulertzen lagunduko diona.

#### Arloaren kompetentziak (Eduki-multzoekiko erlazioa)

1. Ikasleak hainbat bizitza-eremutako testuak (idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak) eraginkortasunez ulertzen, baloratzen, jasotzen eta erabiltzen ditu, bai helburu pertsonalei erantzuteko, bai bere ezagutzak garatzeko zein gizartean parte hartze-ko. (Ahozko komunikazioa / Idatzizko komunikazioa)
2. Ikasleak bizitzako hainbat eremutan komunikazio-egoeraren ezaugarrien baitan dituen helburuen lorpena bideratzen duten testuak sortzen ditu (idatzizko, ahozko nahiz ikus-entzunezko testuak), bakarka zein elkarlanean, argi, jarioasunez eta modu eraginkorrean, hizkuntzaren bidez ekitea eskatzen duten egoeretan hizkuntza-tresna eragingarri gisa erabiltzeko. (Ahozko komunikazioa / Idatzizko komunikazioa)
3. Ikaslea hizkuntzari buruzko hausnarketaz baliatzen da, hizkuntza-sistemako osagaien arteko hartu-emanetz jabetuz, ulermenari eta ekoizpenari dagokionean erabilera hobetzeko eta hizkuntzari buruz hitz egiteko metahizkuntzaren jabe izateko. (Hizkuntzari buruzko hausnarketa)
4. Ikasleak inguruko errealitate soziolinguistikoa kritikoki interpretatzen du, hizkuntzaren bizitza eta garapena baldintzatzen duten faktoreak eta haien arteko harremanak ezagutuz, euskararen erabileraren eta normalizazioaren aldeko konpromiso aktiboa garatzeko, beste hizkuntzekiko errespetu- eta balorazio-jarrerekin batera. (Hizkuntzaren dimentsio soziala)
5. Ikasleak bere bizitzako eremuetan hizkuntza literarioa erabiltzen du, eta literatur erreferenteak interpretatzen eta balioesten ditu, hizkuntza literarioaren dimentsio estetikoaz jabetuz, literatur-lanen esanahia elkarren artean eraikiz eta partekatuz. Horrekin, norberaren nortasun soziokulturala eraikitzeke, bizitzako errealitateari buruzko norberaren ikuspegia, ideiak eta sentimenduak sormenez adierazteko eta edertasunez gozatzeko. (Literatura)

### GIZARTE ZIENTZIAK

**Oinarrizko kompetentzia: Gizarte-gizabide kompetentzia.** Ikaslea gai da, bizitzako hainbat egoeratan, bere burua, kide den taldea eta bizi deneko mundua ulertzeko, gizarte-zientzietako ezagutzen menderatze eta interpretazio kritikoa eginez eta arloaren berezko metodologiak eta prozedurak erabiliz; horrekin guztiarekin, munduko hiritar euskaldun arduratsu moduan gizarte demokratiko eta anitz baten alde aritzeko.

#### Arloaren kompetentziak (Eduki-multzoekiko erlazioa)

1. Ikasleak ingurunearen eta izaera ekonomikoa, soziala, politikoa zein zuzenbidekoa duten giza jarueren elkarreraginak interpretatzen eta baloratzen ditu, hainbat iturritako informazioa aztertuz, elkarreragin horien kausa-ondorio erlazioen esanahiak elkarren artean eraikiz, eguneroko bizitza-eremuetan norberaren eta taldearen jarduna hobetze aldera proposamenak egiteko. (Egungo gizarte / Ingurune naturala)
2. Ikasleak, bakarka zein elkarlanean, iraganeko eta egungo errealitate sozialei buruz egoki justifikatutako analisi kritiko eta arrazoituak egiten ditu, autonomiaz eta zuzentasunez, iturri anitzetako informazioaren trataera kritikoa oinarritutako indagazioak burutuz eta ondorioak argi eta zuzen adieraziz, bizitza tokatu zaion mundua ulertzeko eta egungo gizartearen arazoak eta lorpenen zergatiak buruzko interpretazio pertsonalak egiteko. (Bilakaera historikoa / Egungo gizarte)
3. Ikasleak partaide den komunitateak dituen beharrei, arazo eta gatazkei buruzko arrazoi sendoz justifikatutako erabakiak hartzen ditu, modu aktiboan eta arduratsuan adostasunera iristera bideratutako elkarrizketetan parte hartuz, besteen ikuspuntuak aintzat hartuz eta baloratuz, komunitateko kide sentitzeko, eta munduko herritar euskaldun arduratsu gisa bizitzeko/aritzeko. (Bilakaera historikoa / Egungo gizarte / Bizikidetzak)
4. Ikasleak jarrera kritikoa garatzen du partaide den talde eta erakundeekiko, haien antolamentu-egiturak, bilakaera historikoa eta funtzionamendua aztertuz, bertan dauden jarrera eta egoera diskriminatzaileak eta bidegabekoak salatuz, gaur egungo hainbat egoeraren zergatiak ulertzeko, bere euskal identitate sozialaren sustraiez jabetzeko, eta bera kide den taldeetan era kontziente, arduratsu, kritiko eta sortzailez parte hartzeko. (Bilakaera historikoa / Egungo gizarte / Bizikidetzak)

# GAIA

## EKI proiektua

### Hezkuntza-paradigma berri baterako tresna

#### MATEMATIKA

**Oinarrizko kompetentzia: kompetentzia matematikoa.** Ikaslea gai da, herritar arduratsu gisa, matematikak gizartean duen funtzioa identifikatzeko, ulertzeko eta ezagutza matematikoa erabiltzeko, oinarri sendoko arrazoiketak eraikiz eta matematikaren berariazko pentsamendu eta adierazpen moldeak erabiliz, bizitzako beharrei erantzun eta arazoei irtenbidea eman ahal izateko.

#### Arloaren kompetentziak (Eduki-multzoekiko erlazioa)

1. Ikasleak oinarri sendoko argudiaketa matematikoak egiten ditu, matematikaren adar ezberdinetako pentsamenduaren eta arrazoiketaren moldeak baliatuz, ideiak aztertuz, argudioak ebaluatuz eta inferentziak eginaz, norberak lortutako ondorioak justifikatzeko, beste batzuek egindako interpretazioak baloratzeko, frogen bidez ezagutza matematikoa balioztatzeke eta, horren bidez, diziplinaren etengabeko garapena bideratzeko.
2. Ikasleak adierazpen matematikoen erregistroak sortzen eta erabiltzen ditu, haiek bereiziz eta interpretatuz, egoeraren eta helburuaren arabera egokiena hautatuz eta aplikatuz, adierazpenak erlazionatuz eta haien arteko transferentziak eginaz, fenomeno fisikoak, sozialak eta matematikoak deskribatzeko, interpretatzeko eta modelizatzeko, norberaren ideia matematikoak antolatzeke eta ideia horiek ahoz zein idatziz komunikatzeko, besteen ahozko zein idatzizko adierazpenak ulertzeko eta matematikak gizartean duen funtzioaz ohartzeko.
3. Ikasleak hainbat prozedura algoritmiko erabiltzen eta alderatzen ditu, kalkuluak eginaz, hainbat jarraibide betez, behar izanez gero, kalkulagailuak, ordenagailuak eta bestelako tresnak erabiliz, adierazpen matematikoak eraldatuz eta neurketak eginaz, bere jarduna trebea, autonomoa, estrategikoa, eraginkorra, azkarra eta zehatza izateko.
4. Ikasleak hainbat prozedura heuristikoki aukeratzen eta erabiltzen ditu, egoera baten aurrean arazo matematikoa indetifikatuz eta baldintzak ulertuz, ekintza-plan bat eraikiz, exekutatzeko eta ebaluatuz eta lortutako emaitzen onargarritasuna balioetsiz, arazoaren aurrean ebazpen-prozesya egoki planifikatzeko (Zenbakiak eta Aljebra / Geometria eta Neurria / Funtzioak eta Grafikoak / Estatistika / Probabilitatea)

#### NATURAREN ZIENTZIAK

**Oinarrizko kompetentzia: kompetentzia zientifikoa.** Ikaslea gai da, ezagutza eta metodologia zientifikoa erabiliz, bere burua eta natura ulertzeko, eta horrekin guztiarekin giza jokabide orok norberarengan eta mundu naturalean duen eraginaz ohartzea, bere bizitzako eremuaren egoeretan erabaki arduratsuak hartzeko.

#### Arloaren kompetentziak (Eduki-multzoekiko erlazioa)

1. Ikasleak, bizitzaren hainbat eremutako egoeratan, bakarka nahiz elkarlanean, zientifikoki argudiatzen du, egin dituen esperimendazio eta ikerketa txikien bidez lortutako datu propioak zein besterenak erabiliz eta izaera zientifikoa duten mezuak sortuz, norberaren pentsamendu kritikoa garatzeko eta norbanakoentzat eta gizartearentzat interesa duten benetako erabakiak arduraz hartu ahal izateko. (Materiaren egitura, propietateak eta aldaketak / Izaki bizidunak: egitura, aniztasuna eta funtzioa / Gizakia eta osotasuna / Gizakia eta ingurumena)
2. Ikasleak, bizitzaren hainbat eremutako egoeratan, fenomeno fisiko, kimiko, biologiko edota geologiko nagusiak zein horiekiko iturri ezberdinetako mezuak interpretatzen eta esplikatzen ditu, baita gizarteko garapen eta aplikazio zientifikoki eta teknologiko garrantzitsuenak kritikoki baloratzen ere, kontzeptu, printzipio, balio, jarrera eta hizkuntza zientifikoki egoki eta zuzen erabiliz, fenomeno naturalei zentzua emateko eta giza kulturaren eboluzioan, zientzia bera kreatibitatearen eskutik, eraikiz doazn ezagutzaren garrantzia ere modu kritikoki aztertzeke. /Lurra eta Unibertsoa / Materia: egitura, propietateak eta aldaketak / Izaki bizidunak: egitura, aniztasuna eta funtzioa)
3. Ikasleak, bizitzaren hainbat eremutako egoeratan, giza organismoari buruzko ezagutza zientifikoki erabiltzen du, giza gorputzaren funtzionamendua (maila mikroskopikoan zein makroskopikoan; aldaketa fisikoak, kimikoak...) eta haren osasuna nola zaindu behar den azalduz, zainketa eta arreta ohiturak garatzeko eta ongizate pertsonala zein ingurukoena handitzeko (Gizakia eta osasuna / Gizakia eta ingurumena)
4. Ikasleak, bizitzaren hainbat eremutako egoeratan, ekosistemen funtzionamenduari buruzko ezagutza zientifikoki erabiltzen du, zer elkarrengin sortzen diren eta oreka ekologikoa zer den eta zer faktorek hura eteten duten azalduz, natura balioesteko, naturaz gozatzeko eta hori zaintzen eta hobetzen parte hartzeke (Materia: egitura, propietateak eta aldaketak / Gizakia eta ingurumena).

# EKI proiektua

## Konpetenteak izateko, urrats bat gehiago

Unitate didaktikoaren azalpena egitea egokitu zitzaion, Gasteizko aurkezpenean, Mikele Aldasorori.

Hiru zehaztapen-maila bereizten ditu EKI proiektuak. Batetik, ikaslearen irteera-profil orokorra: oinarrizko hezkuntza amaitzean ikasleak lortzea espero diren gaitasunak; bestetik, ikaslearen irteera-profil espezifikoak: ikuspegia eta metodologiarekin batera, arlo bakoitzaren berariazko konpetentziak zehazten dira, oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrak txertatzen dira, eta, lehenengo aldiz, egiten zaio erreferentzia eduki-multzoari. Irteera-profilaren atal hori oinarrizko hezkuntza osorako izango da. Halaber, ikasmaita bakoitzeko irteera-profila dago, ikasleak ikasmaita bakoitzean lortu beharrekoa. Sei ikas-arloetako bakoitzak amaierako konpetentzia bat izango du ikasmaita bakoitzean, hizkuntzek izan ezik (euskarak, gaztelaniak eta ingelesak arloko oinarrizko konpetentzia komuna izango dute; “eleaniztasuna bideratzeko, ezinbestekoa da hizkuntzen curriculum integratua egitea”, azaldu zuen Aldasorok). Arlo bakoitzaren amaierako konpetentzia-marko hori hiru konpetentzian desglosatzen da, eta horietako bakoitzari unitate didaktiko bana dagokio. Hain zuzen, hirugarren zehaztapen mailan, unitate didaktikoan, hiru konpetentzia horiek landuko dituzte ikasleek.

Integrazio-pedagogiaren azpian dagoen ideia azpimarratu zuen Mikele Aldasorok: “Bikote banaezina osatzen dute konpetentziak eta ikasleari konpetentzia hori bizitzaren eremu ezberdinetan baliagarria izango zaion egoeraren identifikazioak. Bizitzako zein egoerarako balio dio konpetentzia honek ikasleari?”.

Egoerei aurre egiteko ezinbestekoak dira arloko edukiak, baina ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ez da hor amaitzen, EKI proiektuaren egileen arabera. “Konpetente izateak urrats bat gehiago eskatzen du, ikasitako hori beste egoera batzuetara

transferitzeko gai izatea. Planteamendu horrek eraman gaitu konpetentzia bakoitza hiru egoerarekin uztartzera, egoera-familia batekin lotzera. Egoera hauek ez dira aliriztira hautatu. Konpetentziari lotzen zaizkion egoera hauek badituzte ezaugarri komunak, eta ikasleak hiru egoera hauei aurre egiteko antzeko edukiak mobilizatu behar dituzte”. Egoerei aurre egiteko ahalmena erakusteko frogatuko luke ikaslea konpetentzia dela. Ahalmen horrek planifikatzea, garatzea eta gauzatzea eskatzen du. Hortaz, “persona bat konpetentea izatea eta ekin-tzaile izatea, guretzat gauza bera da”, adierazi zuen Aldasorok. Ikaslea konpetente izaten edota oinarrizko konpetentzia metadiziplinarretan egiten eta ekiten ikasteko ardatza, Euskal Curriculumaren garapenerako sortu duten unitate didaktikoa da.

Unitate didaktikoak hainbat fase ditu, eta bakoitzak bere funtzioa eta bere jardura tipologia ditu. Ebaluazioak ere bere funtzioa betetzen du fase bakoitzean. Unitate didaktikoak konpetentzia jakin baten lortzea bideratzen du. Unitatearen hasierako faseak, ikasleak konpetentziarekin erlazionatutako egoerarekiko kokatzea eta haren eskakizunei erantzuteko lan-plangintza egitea du helburu. Fase honetako jardura-tipologiak hauek dira: kokatze-, arakatze- eta planifikazio-jardura. “Ikasleari plangintza irudikatzen erakusten zaio lehen maila honetan, eta horretarako irakaslearen biderakuntza behar du. Ikasleak ikasiko du, egoera baten aurrean, zer egin behar den, norentzat, zergatik, zertarako, nork egin behar duen, zer egiten jakin behar duen, taldea nola antolatu behar duen... Elementu horiek guztiak irudikatu egiten ditu. Miatzen eta deskubritzen laguntzen dio ikasleari”.

Garapen faseak bi atal ditu. Lehenengoan, ikasleak konpetentziarekin erlazionaturiko eduki-baliabideak eta bestelako baliabideak bereganatuko ditu. Edukiak eskuratzeko baliabide nagusia “egoera” izango da, baina ez bakarria. Administrazio ezber-

dinetako curriculum ofizialak ere kontuan hartu dituzte edukiak osatzerakoan. Uler-tze-edota miatze-jarduerak (aurreikusitako konpetentziaren osagaiak eskatzen dituzten eduki-baliabideak bereganatzeko, informazioa eskuratzeko, ulertze, baloratzea eta sortzea), aplikazio-jarduerak (ikaskuntza berriak eskema mentaletan integratzen eta finkatzen laguntzea), egituratze-jarduerak (aurretiko ezagutzen eskema mentalen baitan, ikaskuntza berriak berrantolatzea eta kokatzea) eta autorregulazio-jarduerak dagozkio garapen fasearen lehen atalari. Eduki-baliabideen ebaluazio-jarduerak gida batean eskura izango dituzte irakasleek.

Bigarren atalean, ikasleak eduki-baliabideak mobilizatzen eta integratzen ikasiko du. Integrazio-jardura sinpleak (egoera sinpleak proposatuko zaizkio ikasleari, konpetentziak eskatzen dituen edukien zati baten erabilera inplikitzen dutenak, eta ikasleari eduki horiek mobilizatzen laguntzen diotenak), integrazio-jardura konplexua (hasierako egoera konplexua berreskuratu eta hari irtenbide egokia ematea, horretarako beharrezkoak diren baliabideak modu integratuan mobilizatzen ikasiz) eta autorregulazio-jardura aurreikusitako garapen fasearen bigarren atalak.

Amaierako fasean, ikasleak eduki-baliabideak transferitzen ikasiko du. Horretarako, “konpetentziari lotutako bigarren egoera emango zaio ikasleari, eta egoera horrekin lotutako hiru zeregin ere”. Integrazio-jardura konplexuaren bidez, “ikasitako baliabideak modu integratuan mobilizatzen eta transferitzen ikastea” da helburua. Aurreko faseetan bezala, autorregulazio-jardura ere izango du ikasleak.

Azkenean, konpetentzia zertifikatzeko fasean, familia bereko egoera berri bat aurkeztuko zaio ikasleari, eta harekin lotutako hiru zeregin. Hiru zereginetatik bat irakasleak hautatuko du, eta ikasleak beste bat. Bi zereginekin frogatutzat emango da gaitasuna.





## 0 - 3 urte bitarteko hezitzaileentzako prestakuntza

Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakondu asmoz, 200 ordutik gorako bi urteko prestakuntza eskainiko du datorren ikasturtean hik hasi-k.

Hiru oinarri nagusi izango ditu formazio horrek:

- **Emmi Pikler** (koordinatzailea: Juanjo QUINTELA)
- **Loris MALAGUZZI** (koordinatzailea: Alfredo HOYUELOS)
- **Formakuntza pertsonala** (koordinatzailea: Alvaro BEÑARAN)

Ikaslerro bakoitzean, gaian adituak diren Euskal Herriko nahiz kanpoko hezitzaileek eman-go dute prestakuntza.

**Informazio osoa eta izena emateko aukera, ekainean,**  
**[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)** helbidean

# josep maria artigal



Argazkiak: Txema Garzia

## ELKARRIZKETA

EDITOREA ETA BIGARREN HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN ADITUA

“Ikasleei gauzak azaltzen jakitea ez ezik, entzuten jakitea ere irakasleen eginkizuna da”

**Josep Maria Artigal irakasle eta editore katalanarentzat, “zenbat” hizkuntza edota “noiz” irakatsi baino garrantzitsuagoa da “nola” irakasten den. 35 urte daramatza umeei ama-hizkuntzaz besteko hizkuntzak irakasten. Euskararen mundura ikastolen eskutik sartu zen, duela 21 urte, eta Euskal Herriko esperientziak egin dio ekarpenik handiena bere irakaskuntza-metodoari. Haurra, hastapenetatik, protagonista eta hizkuntza berriaren erabiltzaile bilakatzen du haren metodoak. Ikastolen Elkarreak antolatutako XX. Jardunaldi Pedagogikoetara etorri da Gasteizera, eta orduan elkarrizketa du hik hasi-k.**



### **30 urtetik gora daramatzazu ipuinen bidez bigarren edo hirugarren hizkuntza irakasten. Baina nola hasi zinen horretan?**

Maisu gisa, 1978an hasi nintzen, Haur Hezkuntzan, etxean katalanez hitz egiten ez zuten haurrei katalana irakasten. Garai hartan, bazeuden Lehen Hezkuntzako ikasleei katalana irakasteko materialak, baina ez zegoen Haur Hezkuntzako haurrentzako ezer. Hainbat kideren laguntzarekin, Haur Hezkuntzarako egokiak ziren jarduera batzuk proposatu nituen. Jarduera haien bidez, haurrek hizkuntza ikasteko gogoia izan zezaten lortu genuen, baina, hala eta guztiz, nik katalanez hitz egiten banien ere eta haiek ulertzen bazidaten ere, ia inoiz ez zuten erabiltzen irakasten ari nintzaien hizkuntza. Neuk hitz egiten nuen, hitz egin eta hitz egin eta hitz egin, eta haiek ulertzen zidaten, baina ez zuten deus egiten katalanez. Hasieran, normala zen, teoria estandarrek dioten prozesua betetzen ari baikin (Krashe, Terrel, Asher): lehenik eta behin, input ulergarria jasotzea; gero, isilaldia, behar-beharrezkoa; eta, azkenik, outputa. Baina, denborak aurrera egin arren, ez zen aldatu elebitasun asimetrico hura. Prozesu horrek beti horrela izan behar ote zuen galdetzen nion neure buruari: “Ulertzea eta sortzea: ezinbestekoa al da prozesu horiek ondoz ondo gertatzea? Aldi berean gerta daitezke? Ikasleei hasiera-hasieratik hitz eginaraziko dieten irakaskuntza-metodoak egin ditzakegu?”.

### **Horrela iritsi zinen ipuinetara, ipuinak antzeztuz bigarren hizkuntza irakastera?**

Erratuz, hanka sartuz eta gauza asko probatu ondoren iritsi ginen ipuinak horre-

la taularatzera. 1979tik 1980ra bitartean, lan egiteko beste modu bat jorratu nuen, ikasleei katalana hasiera-hasieratik erabiltzeko aukera ematen zien bide bat: ipuina. Ipuinak antzezten genituen, irudirik gabe eta ia narratzailearen esku-hartzerik gabe. Ipuin horietan, haurrek eta nik, denok batera, hitzez adierazten genituen pertsonaia guztien ahotsak. Horrela, hasieratik, ikasleak eurak ziren protagonista: batera egiten eta esaten genuen bide ematen zien ulertzeko eta hitz egiteko.

80ko hamarkadaren hasieran, Kataluniako Generalitateko Katalanaren Irakaskuntza Zerbitzuarekin hasi nintzen lankidetzan, eta, zerbitzu horri esker, 1.500 irakasle bano gehiagok eskuratu zituzten ipuin horiek. Ikasgeletan erabiltzen zituzten irakasleek, eta, gero, lantalde txikietan, elkarri jakinarazten zioten zer ez zen ondo atera eta zer zen baliagarria eta interesgarria. Praktikak erakutsi zigun haurrei bigarren hizkuntza irakasteko orduan zer den baliagarria, eta zer ez.

### **Kataluniako esperientzia hori handik kanpo zabaldu zenuen berehala, Euskal Herrian, Finlandian, Frantzian, Alemanian, Okzitanian... Haur Hezkuntzako haurrei bigarren hizkuntza irakasteko prozesuan, gauza berak balio al du toki guztietan?**

Prozesua, ikasteko eta erabiltzeko prozesu hori, nahiko antzekoa da leku guztietan. Leku horietako hizkuntza-irakasleek ipuinak erabili zituzten, beren jardunbideei buruz hausnartu zuten...

Baina alde handia dago kulturaren ikuspegitik, eta, horregatik, ipuina aldatu egin behar da: erritmoak, pertsonaiak... Ama italiar bat eta ama finlandiar bat ez dira gauza bera; egoera soziolinguistikoak ere ez dira berdinak; eta gauzak aldatu egiten dira, lehen hizkuntza eta bigarrena antzekoak direnean (gaztelania eta katalana) edo ez direnean ere (gaztelania eta euskara).

Parte hartu duten haurren kopurua eta irakasleekin eginiko hausnarketa kontuan hartuta, Euskal Herrikoa izan da esperientziarik garrantzitsuena, zalantzarik gabe. Duela 21 urte hasi nintzen ikastolekin lanean, eta haiekin ikasi dut gehien. Inon baino ikasgela gehiagotan sartzeko aukera izan

# josep maria artigal

E

“Haurrak ahotsa eta ikusgarritasuna izan behar lituzke ikastetxean. Haurrak beti entzuten ari badira, ez daukate ez ahotsik, ez ikusgarritasunik

“Garrantzitsua da irakasleek haurrekin mapak eraikitzea, haurrek horiek ezagutu eta berorietan parte hartu ahal izateko. Hitz egiten dugun bitartean, egiten ari garen horren mapa eraiki behar dugu

du, eta, ikastoletako andereñoen ekarpenari esker, proposamena asko aberastu da.

## Zertan aldatu da metodoa, nagusiki, 35 urteko ibilbide horretan?

Irakaskuntzan hasi nintzenean, uste nuen maisu gisa nire egitekoa kontatzen jakitea zela; eta ikasleena, berriz, entzuten jakitea. Orain, gauzak bestela ikusten ditut: ez da aski jakitea; kontatzen jakitea da benetan garrantzia duena. Hori da maisu-maistren lana: ikasleek kontatzeko gaitasuna garatu behar dute, eta, horretarako, entzungo dieten solaskideak bilatu behar ditu andereñoak.

Urte hauetan guztietan, berrikuntza nabarmenena ildo horretatik etorri da, ikuspegi praktikotik: haurrek irakaslearen aurrean esaten dutena, gero, irakaslea ez dagoenean, besteei esaten dietela, beste ikasturte batzuetako kideei, ikastetxeko sukaldariari, gurasoei, neba-arrebei edota aitona-amonei. Esperientziak irakatsi digu haurrek gehiago ikasten dutela eginez eta besteei kontatuz, irakasleei begiratzuz eta entzunez baino, nahiz eta irakasleek ipuina oso ondo kontatu eta hizkuntza-maila aparta izan.

## Irakasleek gutxiago hitz egin behar-ko lukete eskoletan, eta haurrek gehiago?

Haurrei entzun diezaieten, praktikak eta jarduerak proposatu behar-ko lituzke irakasleak. Haurrak ahotsa eta ikusgarritasuna izan behar lituzke ikastetxean. Haurrak beti entzuten ari badira, ez daukate ez ahotsik, ez ikusgarritasunik. Ikasleek kontatzeko eta hitz egiteko aukera izan dezaten bultzatu behar dugu.

Hizkuntzekin bezala gertatzen da musikarekin, kirolarekin eta abarrekin ere. Zure ikasleek biolina, txirula... ikas dezaten nahi baduzu, presta izeaiezu kontzertu bat 15 egunean behin, nahi duzun aitzakiarekin. Hala egiten dute Europan, kontzertuak emanez ikasten baitute benetan musika jotzen. Entrenamenduekin ere, gauza bera gertatzen da: partidetan ikasten dugu futboleko jokatzeko, besteak begira ditugunean.

Haurrak ikastetxean jaso duena beste bati kontatzen dionean eta besteak entzuten dionean, ahotsa du, eta ikusgarritasuna.

## Praktikarekin batera, zure metodoa teoriari jantzten joan zara, ezta?

Praktikatik abiatzen naiz ni, eta horregatik ulertzen dut, gero, teoria. Ibilbide horretan, hizkuntzalaritzan, psikolinguistikari, hizkuntzaren didaktikan, soziologian eta filosofian bilatu behar izan dut informazioa.

Hogeita hamabost urte igaro dira, eta honela laburbil ditzakegu gaur egungo aurreiritzi teorikoak: haurrek hizkuntzak ikasiko badituzte, beharrezkoa da haur horiek hizkuntzak erabiltzea; are gehiago, beste norbaitekin erabiltzea, eta haurrek eta beste norbait horrek elkarri ahotsa eta agerikotasuna ematea. Ikaskuntza-prozesuaren hasieran, ahots eta agerikotasun horiek bide ematen diete oraindik ez dakiten hizkuntza erabiltzeko eta, erabiliaren erabiliaz, ikasteko. Ikasleei gauzak azaltzen jakitea ez ezik, entzuten jakitea ere bada hizkuntza-irakasleentzako gaitasuna eta, oro har, irakasleena.

## Zure praktika oso lotua dago Chomskyren 0 gramatika edo gramatika unibertsalaren teoriarekin. Gutako edonor gai da inoiz entzun ez dituen edo inork inoiz entzun ez dituen esaldiak ulertzeko eta esateko, eta honela arrazoiatzen du hori Chomskyk: espazio mental bat da hizkuntza, eta gizakiok beti gaude orientatuta espazio horretan; horregatik gara gai, hain zuzen ere, esaldi infinitu ulertzeko eta sortzeko eta, beraz, gaitasun hori eskuratzeko.

Chomskyk dio haurra hizkuntzaren maparekin jaiotzen dela; bestela, ezin dela azaldu inoiz entzun ez dituen esaldiak ulertzea. Chomskyren arabera, mapa hori jaiotzetikoa da, eta erabat linguistikoa. Hau da, ez dugu eraiki beharrik.

1975ean, Chomskyren argudio nagusia onartu zuen Brunerrek —hizkuntza espazio mental bat da, eta gizakiok badakigu espazio horretan orientatzen—, baina zenbait zalantza mahai gainera atera zituen: “Jaiotzetikoa al da gaitasun hori?”, zioen, besteak beste. 1975etik 1990era bitartean, haurtxoen eta haien zaintzaileen arteko elkarrekin aztertutako Brunerrek. Horri esker, hizkuntza komunikazio-tresna nagusi bilakatu aurretik haurrak ekintzak elkarrekin kudeatzeko gai direla jakin zuen, eta



baita, hein handi batean, elkarrekintza horiek behar bezala gertatuko direla bermatzeko gai direla ere. Brunerrek uste zuen haurrak eta haien zaintzaileak gai direla komunikazio-mikrokosmos egonkorrak eta igar daitezkeenak eraikitzeke, hertsiki linguistikoa den gaitasun bat—Chomskyk aipatzen duena—erabili eta garatu aurretik. Eguneroko ekintzetan agertzen dira horren adibideak: haurrak bainatzen ditugunean, jaten ematen diegunean, ipuinak kontatzen dizkiegunean eta lotara eramaten ditugunean. Agertzen dira irakasleok Haur Hezkuntzako ikasleekin eraikitzen ditugun ohituretan ere, denborarekin eta espazioarekin lotuta, betiere. Mapa pragmatikoak dira horiek: amak, zaintzaileak edo andereñoak haurrekin egiten duten horri buruz eraikitzen duen mapa, errituaren mapa, beste heldu batek ikusiko ez lukeen mapa. Mapa horretara ohituta dauden umeak erraz iristen dira Chomskyren mapa morfosintaktikora.

Haurrak hizkuntza bat ikasten ari direnean egiten duguna ikustea da gure lana. Ekintzen mapa daukagu, hizkuntza ikasteke egiten dugunaren mapa—ipuina hemen kontatzen dugu, erritmo honetan, gero txokora goaz...—, eta hortik iritsiko gara mapa linguistikora. Amek umeekin egiten dutenaren mapa (bainua, ipuina gero, loa ondoren...) eraikitzen dutenean, ume horiek ho-

beto hitz egiten dute.

Batetik, hitz egiten dugunean egiten dugun horren mapa daukagu, ekintzen mapa; eta, bestetik, mapa emozionala. Eta bi mapa horiei esker iritsiko gara Chomskyren mapa linguistikora.

#### **Azal dezakezu zer den mapa emozionala?**

Ekintzen mapak—eta mapa horretan parte hartzeko aukerak— eta mapa emozionalak ematen diote haurrari ahotsa eta ikusgarritasuna.

Urtebeteko haur bat inor ezagutzen ez duen gela batean sartzen baduzu, negarrez hasiko da bigarren minuturako. Aldiz, gela horretan ama-ahotsa duen norbait baldin badago, edo aita-ahotsa, aitona-ahotsa, neba-ahotsa duen norbait, haur hori bere mapa emozionalean ahotsak kokatuz doa. Badaki mapa horretan seme gisa entzuna izango dela, edo biloba gisa, edo arreba gisa... Gure ingurukoak “norbait” izateari utzi dionean eta ama, aita, lagun, andereño... bihurtu denean, mapa emozional bat daukagu, eta, seme, anaia, ikasle edo lagun gisa barruan sentitzen direnean ulertuko dute mapa hori. Besteen begirada behar dugu, nor izateko. Ez daukazu ahotsik hitz egiten duzunean, ahotsa besteek entzuten dizutenean daukazu. Eta hori beharrezkoa da,

hizkuntza bat ikasten duzunean.

Nik proposatzen dudana zera da: hizkuntza bat irakasten hasten garenean, haurrei ikasten lagunduko dien programazio bat prestatzen dugunean, ez diezaiogun erreparatu mapa linguistikori, utz dezagun albor a hitz zailak edo esaldi luzeak erabiltzen dituzten; beraiek mapa emozionalean eta ekintzen mapan ondo kokatuta dauden hartu behar dugu kontuan. Horrela, arinago iritsiko gara mapa linguistikora. Garrantzitsua da irakasleek haurrekin mapak eraikitzea, haurrek horiek ezagutzeko eta berorietan parte hartu ahal izateko. Hitz egiten dugun bitartean, egiten ari garen horren mapa eraiki behar dugu. Nire andereñoak denbora eta espazioa antolatzen baldin badizkit eta denbora-espazio horretan nondik nora eta nola mugituko garen antolatzen badu nirekin, mapa bat eraikitzen ari gara, eta nik, umeak, badakit mapa horretan nola mugitu. Ez naiz galduko, eta, era horretan, Chomskyren mapa linguistikora iritsiko naiz.

#### **Mapen eraikuntza horretan, zer garrantzi dauka 0-6 etapak hizkuntzaz jabetzeko orduan?**

Nik 3-7 etapan lan egin dut, ez dut 0-2 etapa landu. Baina argi dago 3-7 etapa oso garrantzitsua dela, eta hala erakusten dute

# josep maria artigal



karen arlokoak dira batez ere. Helburuon bitartez, hauxe bermatu behar dugu: bate-tik, hizkuntza berria erabiltzean, ahotsa eta agerikotasuna ematea ikasleei; eta, bestetik, hizkuntza zer ekintzatan erabiltzen den aintzat hartuta, ekintza horiek eraginkorrak eta bideragarriak izatea.

## Nola aplikatzen dituzu jarduera didaktikoetan hiru mapa horiek, hiru gaitasun horiek?

Ipuinen bidez.

## Zer ezaugarri dituzte ipuin horiek?

Ipuinak lantzen ditugunean, lehenik eta behin, eszenaratze kolektibo bat egiten dugu. Zirkuluerdian batean jarriko ditugu ikasleak, eta pertsonaien ahotsak esango dituzte haur guztiek. Ahal dela, narratzailea kendu egingo dugu, ez dauka ahotsik; eta, gainera, morfosintaktikoki oso konplexua denez, haurrak ez dira horretara iristen (estilo zuzena, iragan denbora eta esaldi luzeak erabiltzen ditu; aldiz, pertsonaien estiloa zuzena da, eta orainaldia eta askoz esaldi laburragoak erabiltzen dira). Pertsonaia gutxiko ipuina eszenaratuko dugu; bestela, ezin izango dituzte kokatu pertsonaia mapan. Irudiak saihestea gomendatuko nioke andereñoari. Gero, konta dezala haurrak ipuin hori etxean, eta entzun diezaiotela: haurrak eginez eta besteei kontatuz ikasten du hizkuntza bat. Haurrek beraiek kontatzeak, azalpenak emateak eta beraiek irakasteak berebiziko garrantzia du.

**“ Benetan garrantzia duena ez da “noiz”, “nola” baizik. Hizkuntzak ikasteko proposatzen diegun bidea desegokia baldin bada, agian bizitza nahasiko diegu ”**

ikerketek ere.

Dena den, garrantzitsua ez da 3-7 etapa; benetan garrantzia duena ez da “noiz”, “nola” baizik. “Nola” hori 3-7 etaparako, ez baita berdina 3 urterekin eta 14 urterekin. Horixe da benetan garrantzitsua. Galdera ez da haurrek zenbat hizkuntza ikas ditzaten nahi dugun, “nola” ikas ditzaten nahi dugun baizik. Hizkuntzak ikasteko proposatzen diegun bidea desegokia baldin bada, agian bizitza nahasiko diegu; aldiz, beste bide bat, beste “nola” bat, aukeratzen badugu, bigarren edo hirugarren hizkuntza ikasteaz gain, lehenengoa ere indartzen ariko gara. Horregatik, “nola” da garrantzitsua. “Nola” horren ardura dauka irakasleak; ez da soilik nola hitz egiten dudana, hitz egiten dudanean zer egiten dudana eta hitz egiten dudana hori nola antolatzen dudana baizik.

Haur Hezkuntzako hizkuntza-irakasleon helburuak ez dira hertsiki linguistikoak; helburu horiek identitatearen eta pragmati-

**“ Konta dezala haurrak ipuin hori etxean, eta entzun diezaiotela: haurrak eginez eta besteei kontatuz ikasten du hizkuntza bat ”**



# PARTAIDETZA:

## gurekin bada, izango da (VIII)




**Marije APODAKA,  
Gotzon QUINTANA  
eta Bea UGARTE**

### II.3 tresna. Nork lagundu didate erabakiak hartzen?


Erabaki bat hartu behar izan dudan nire bizitzako zenbait une garrantzitsu aukeratuko ditut, eta aztertu egingo ditut, honako taula honen laguntzaz. Aukera desberdinak balioesteko inguruko laguntza izan arren erabaki bat hartu behar izan dudan beste egoera batean pentsatuko dut (laugarrena). Interesgarria izan daiteke nire biografiako une horiekin lotutako zenbait argazki bilatzea eta, horrela, halako collage edo album bat egitea lau egoera horiekin, ezagutzen dugun baliabide digitalen bat erabiliz horretarako (adibidez: <http://picasa.google.com/intl/es/> )

Egoera	hartu beharreko erabakia	Adierazleak (aukeratu dagokizuna honako bi mutur hauen artean)		
		ni	0-1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	beste batzuk
1		autonomia		
		erantzukizuna		
		txikia	0-1-2-3-4-5-6-7-8-9-10	handia
		askatasuna		
		gogobetetasuna		
Nortzuk nituen inguruan une horretan?				
Aintzat hartu zuten nire iritzia? Zergatik?				
4	Erabaki hau hartu dut:			
	Aukera hauek nituen:			
	Honekin hitz egin dut horretaz:			
	Pertsona hauek lagundu didate gehien:			
Zer sentitzen da erabaki beharra eta erabakitzeke aukera dugunean?				

**BATERATZE-LANA**

II.4 zk.	Internet: intimitaterako mundua? 
<b>Deskribapena</b>	Jarduera honetan, partaidetzarako gune gisa teknologia berriek duten erabilera aztertuko dugu; baina, aldi berean, norberak eta ez “besteek” kontrolatu beharreko mundu bat dela ikusi behar dugu. Harreman eta bizikidetzaren positiborako sare eta foroak sortzeko gune gisa Internetek zer balio duen aztertzea da kontua.
<b>Teknika</b>	Jolasa: “kontrolik gabe” Taldea handian: debatea
<b>Materialak</b>	Ordenagailuak eta Internet
<b>Funtsezko alderdiak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Biribilean jarrita egingo den jolas honetan, inork ez duela minik hartuko, guztiak dibertituko direla eta helburua betetzen dela bermatu nahi da. Hala gertatzen ez bada, gogoeta egingo dugu, horrela zergatik ez den izan eta “porrotera” zer jokabidek eraman gaituzten aztertzeko.</li> <li>– Une egokia izan daiteke gazteen arteko bikote-harremanetan mutil askok nesken gain izaten duten kontrolaz hitz egiteko eta gai horretan sakontzeko.</li> </ul>	
<b>Garapena</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– “Kontrolik gabe” deritzon jolas honetarako, 5/6 laguneko taldeak osatuko dira. Parte-hartzaile guztiak biribil bat osatuko dute, eta bat biribilaren barrualdean kokatuko da. Azken horrek borondaterik gabe utziko du bere burua, eta alderik alde ibiliko dute biribilean batetik bestera. Biribilean daudenek beraiei bururatzen zaien keinuren bat egiteko ere eska diezaioke. Txandaka, rola alda ditzakete.</li> <li>– Jarduera egin ondoren, gogoeta egingo da talde handian: <ul style="list-style-type: none"> <li>a. Nola sentitu dira biribilaren barruan?</li> <li>b. Zer dira botere pertsonala eta autokontrola?</li> <li>c. Nola sentituko da botere pertsonalik erabili ezin duen pertsona bat?</li> <li>d. Nola sentitu dira biribilaren erdian beren burua borondaterik gabe utzi duten pertsonak?</li> <li>e. Nagusitasun/mendetasun eskemaren barnean, zer-nolako harremanak ezartzen dira pertsonen artean?</li> <li>f. Gure bizitzako zer unetan gerta daiteke horrelakorik? Gerta al daiteke Interneten? Nola?</li> </ul> </li> <li>– Azterketa hori egin ondoren, ezagutzen dituzten sare birtual guztiak (messenger, tuenti, facebook, myspace...) aipa ditzakete berriro ere taldean (eta sare horiek bisita ditzakete gelan, horretarako aukerarik izanez gero); eta partaidetzarako, botere pertsonalerako eta autokontrolerako lagungarri nahiz kaltegarri izan daitezkeen alderdiak azpimarra ditzakete: <ul style="list-style-type: none"> <li>a. Nork parte hartzen dute horrelako sareetan?</li> <li>b. Zer harreman mota ezartzen da sare horietan?</li> <li>c. Kontrolik ba al dago? Nork kontrolatzen du nor?</li> <li>d. Nola kontrola dezakegu, kontrola ez gaitzan?</li> <li>e. Nola kontrola dezakegu ondo kontrolatzen ari garela?</li> </ul> </li> </ul>	
<b>Sakontzeko</b>	
<p>Cantera, Itziar; Estébanez, Ianire; Vázquez, Norma (2009). Violencia contra las mujeres jóvenes: la violencia psicológica en las relaciones de noviazgo. Deustu-San Ignazioko Arreta Psikosozialeko Moduluko Emakume Zerbitzua.</p> <p>Cantera, Itziar; Estébanez, Ianire; Vázquez, Norma (2009) Revista Desconecta del maltrato. Guía para jóvenes. <a href="http://minoviomecontrola.blogspot.com">http://minoviomecontrola.blogspot.com</a></p> <p>“Kontuz Datos”: <a href="http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuz00/eu/contenidos/informacion/udcd/eu_udcd/decides.html">http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuz00/eu/contenidos/informacion/udcd/eu_udcd/decides.html</a></p> <p>“Pantallas amigas”: <a href="http://www.pantallasamigas.net/">http://www.pantallasamigas.net/</a></p>	



II.5 zk.	Ikasgelako batzarra 
<b>Deskribapena</b>	Lankidetzan oinarritutako dinamika honek ikasgelako batzarra elkarrizketarako eta lankidetzarako estrategia gisa egokia den ebaluatzen lagunduko digu, ikastetxearen antolamendu eta egituraren ezarri edo indartu dezakegun estrategia baita. Internetek zer balio duen aztertzea da kontua.
<b>Helburuak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ikasgelako batzarraren aukerak eta izan ditzakeen erabilerak ebaluatzea.</li> <li>2. Berrorren ezagutza eta erabilera sustatzea, partaidetzarako estrategia den neurrian.</li> <li>3. Batzarraren eraginkortasuna eta arrakasta bultzatzen lagunduko duten mekanismoak indartzea.</li> <li>4. Batzarrak eraginkortasunez funtziona dezan beharrezkoak diren arauak eta karguak adostea.</li> </ol>
<b>Lorpenen adierazleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Antolamenduaren eta zereginen banaketaren ikuspegitik, ardurak eta konpromisoak hartu dira, ikasgelan batzarrak egiteko.</li> <li>– Ikasgelaren dinamikan batzarrak parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko duen ahalmenari buruzko arrazoiak ematen ditu.</li> <li>– Taldeak bere buruari ezarritako arauak eta konpromisoak errespetatzen dira.</li> <li>– Parte hartzen du taldean planteatutako talde-lanetan.</li> </ul>
<b>Zenbat denbora beharko den</b>	50´
<b>Teknika</b>	Arkatzak erdira (egokitua: Pere Pujolas, José Ramón Lago, Vic-eko Unibertsitatea) <sup>1</sup>
<b>Materialak</b>	Elkarrekin lan egiteko fitxak (II.5 tresna)
<b>Funtsezko alderdiak</b>	
– Jardueraren izaera kooperatiboa nabarmendu nahi dugu, eta, beraz, horregatik azpimarratu dugu proposatutako metodologia.	
<b>Garapena</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Dinamizatzaileak II.5 tresna jasotzen duen orria emango dio talde bakoitzari; orri horretan, taldekideak adina galdera izango dira (kasu honetan, lau). Parte-hartzaile bakoitza galdera baten erantzunaz arduratuko da: ozen irakurriko du, gainerako taldekideek informazioa ematen dutela ziurtatuko du, eta adostutako erantzuna guztiek ulertzen duten egiaztatuko du.</li> <li>– Hizketan ari direla eta taldeko erantzuna adosten duten bitartean, arkatzak mahaiaren erdian kokatuko dira. Talde osoak gauzak argi dituenen (galdera horren ardura duen pertsonak erantzuna guztiek dakitela ziurtatu behar du), bakoitzak bere arkatza hartuko du, eta adostutako erantzuna idatziko du fitxan. Jada ezin da hitz egin une horretan, idatzi baino ez dute egin behar.</li> <li>– Horrelaxe jarraituko dute galderaz galdera, jarduera osatu arte.</li> </ul>	

<sup>1</sup> <http://www.cife-ei-caac.com>

## II.5 tresna. Ikasgelako batzarra

Talde handian, gai hauei buruz hitz egingo dugu:

- Zer ekarpen egiten dio akordioak taldearen funtzionamenduari?
- Zergatik izaten da zaila akordioak betetzea?
- Guztiok gaude behartuta batzarraren erabakia betetzera?
- Akordioak eta konpromisoak suntsi ditzake pertsonaren ekimena eta askatasuna?

### **Aldarrikapenetik taldeko konpromisora:**

Zer ikuspegi dugu batzarrei buruz? Zuen iritziz, nola balioesten dituzte irakasleek? Eta nola balioesten ditugu guk?

Egin esaldi honen balorazioa: antolatutako toki eta denbora tarte sistematizatu bat izateak elkarriketa, lankidetzeta eta sormena sustatzen ditu, eta horixe da partaidetzarako oinarritzko estrategietako bat.


Idatzi esaldi batean batzar bat egiteko izan daitezkeen zailtasunak, eta balioetsi batzarrak oso modu negatiboan.

Adostu batzar bat ondo joan dadin zuen iritziz beharrezkoa den arau bat, eta pentsatu batzarrak ondo funtziona dezan beharrezkoa den kargu edo ardura bat.


### **Proposamenetatik akordioetara, eta akordioetatik arduetara: proiektu eta erabakien jarraipena.**

Talde handian, gai hauei buruz hitz egingo dugu:

- Zer ekarpen egiten dio akordioak taldearen funtzionamenduari?
- Zergatik izaten da zaila akordioak betetzea?
- Guztiok gaude behartuta batzarraren erabakia betetzera?
- Akordioak eta konpromisoak suntsi ditzake pertsonaren ekimena eta askatasuna?

II.6 zk.	Mundu hobe baten aldeko manifestua 
<b>Deskribapena</b>	Gizarte-egoera ahulean dagoen kolektibo baten eskubideetan aurrera egiteko, hainbat hobekuntza aldarrikatzen dituen manifestu bat diseinatuko dugu, eta, horrela, guztiok izan behar genituzkeen oinarrizko eskubideak aztertuko ditugu.
<b>Teknika</b>	Taldea txikitari: ikerketa, eta manifestua lantzea.
<b>Materialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenagailuak eta Internet.</li> <li>- Manifestua egiteko kartelak: kartoi mehea, arkatzaileak, guraizeak...</li> <li>- Bilatu aztertuko den kolektiboarekin lotutako giza eskubide bat, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalekoa:</li> </ul> <a href="http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq">http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq</a>
<b>Funtsezko alderdiak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kolektibo horiei buruz informazioa biltzeko auzo-elkarteetara edota gizarte-izaerako elkarte eta zerbitzuetara bisitak egin nahi badira, aurrez prestatu beharko dira: nola hurbilduko diren, nola azalduko dieten zer lan egiten ari diren, zer galdetu, informazioa nola bildu, edota jaso duten erantzunagatik eskerrak nola eman.</li> <li>- Definizioak idatziko ditugu.</li> </ul>	
<b>Garapena</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- 4/5 laguneko taldeak osatuko dira, eta jarduera egiteko prozesua azalduko zaie. Oinarrizko eskubideen funtsezko agiri gisa, Giza Eskubideen Adierazpena emango zaie.</li> <li>- Hasteko, beraien ustez gure auzo eta herrietan gizarte-egoera ahulenean bizi diren kolektiboak identifikatu behar dituzte (gizon eta emakume etorkinen artean, emagalduen artean, homosexualen artean, mugikortasuna murriztuta duten pertsonen artean, lanik edo etxerik ez duten gazteen artean, ijitoen artean, familiar ardurak dituzten pertsonen artean...). Kolektibo batzuek aukera gutxiago zergatik dituzten azalduko zaie, edo zerk eragozten dien beste kolektibo batzuek dituzten eskubideez edo egoerez gozatzea.</li> <li>- Kolektibo horiek apur bat ezagutu ondoren, bat aukeratuko dugu, taldean kolektibo horren ezaugarrietan sakontzeko. Interneten, inguruko elkarteetan, gizarte-zerbitzuetan eta abarretan bilduko dute informazioa.</li> <li>- Aukeratutako kolektibo hori ondo ezagutzen dutenean, "gizarte-egoera ahul" hori gainditzeko zer zailtasun dituzten ikertuko dute, eta kolektibo horretako kideen egoera hobetzeko egin daitezkeen ekintzak bilduko dituzte zerrenda batean. Bisita ditzaketan elkarte eta foroetan, argibide ugari aurkituko dituzte.</li> <li>- Zerrenda horrekin, manifestu bat prestatuko dute, eta ikastetxeko iragarki taulan, blogean, erakusketa batean, jolastokiko mitin batean, ikasgeletara egiten dituzten bisitetan eta abarretan erakuts dezakete.</li> </ul>	

II.7 zk.	Nik egin dezaket...
<b>Deskribapena</b>	“Nik egin dezaket...” jarduerak norberaren bizi-proiektuan eta norberaren ahalmenean pentsa dezagun bultzatu nahi du, subjektibotasunaren ikuspegitik eraiki dezagun hori guztia, betiere kontuan hartuta besteekiko nahiz inguru hurbilarekiko interdependentzia.
<b>Teknika</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde txikietan: puzzle bat osatzea</li> <li>- Banakako lana: barne-behaketa</li> <li>- Talde handian: eztabaida</li> </ul>
<b>Materialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- II.7 tresna</li> <li>- II.7 baliabidea: ahalduntzea</li> <li>- Puzzleak (proposamen honekin hasi behar bada)</li> </ul>
<b>Funtsezko alderdiak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Xume eta argi azaldu behar diegu zer den ahalduntzea, subjektibotasunetik, taldearen jarduerak eta ahalmena aztertzeko.</li> <li>- Gure bizi-esparruetan besteek duten eragina hainbat modutara azal daiteke: zer mailakoa den esanez (eragin handia, ertaina edo txikia), erabakiak nola hartze diren ikusiz (nire ordezkari erabakitzen dute, elkarrekin erabakitzen dugu, erabakitzeko orduan ez diot inori galdetzen), nola komunikatzen garen aztertuz (gertatzen zaizkigun gauzez egunero hitz egiten dugu, soilik gertatzen zaizkien gauzez hitz egiten dugu, soilik niri gertatzen zaizkidanez hitz egiten dugu), afektu-harremanen arabera (txera, adiskidetasuna, maitasuna erakusten diogu elkarri; ez diogu elkarri inoiz afektuzko edo maitasuneko hitzik esaten, ez dugu inoiz erakusten gure afektibitatea), edo bururatzeko zaizkigun beste hainbat itemen bidez.</li> </ul>	
<b>Garapena</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Saioa hasteko, irakasleak galdetuko die ea zer den puzzle bat beren ustez: zer ezaugarri ditu puzzleak? (Unitate bat da, eta hainbat azpiunitatek osatzen dute; beren izatea dute zati horiek, baina, zerbait logikoa osatzeko, besteen beharra dute. Batasun edo unitate hori ere azpiunitate horien mende dago, “osatu” ahal izateko guztiak baititu beharrezko). Puzzleak eman diezazkiekegu, taldeka egin ditzaten eta jarduera jolas moduan has dezaten.</li> <li>- Jarduera honetako tresnekin lanean hasi aurretik, norberaren ahalmena edo ahalduntzea zer den azaldu beharko diegu.</li> <li>- Ikasle bakoitzak puzzle bat izango du, II.7 tresnan ageri dena bezalakoa. Puzzleak bezala, gure bizitzak ere piezak dituela esango diegu. Badirudi pieza bakoitza askea dela besteekiko, baina norberaren zati dira guztiak. Ariketan, horietako bakoitzean pentsatu behar dugu, eta horietako bakoitzak norberarengan (osotasuna) eta besteetan (azpiunitateen arteko interdependentzia) nola eragiten duen aztertu behar dugu.</li> <li>- Tresnari dagokion fitxan, zati horietako bakoitza norberak nola ikusten duen idatzi behar dute, eta beste zer piezarekin lotzen den (puzzlean bertan geziak eginez azal dezakete, edo maila zehaztuz, adibideak emanez...).</li> <li>- Amaitzeko, galdera hauxe egingo zaie: zuen ustez, zer piezatan dauka zuetako bakoitzak ahalmen handiena? Zeinetan sentitzen zarete “askeago” zuen erabakiak hartzeko orduan edo erabakietan eragiterakoan? Pribatutasunari eusteko, orokorrean erantzungo da.</li> </ul>	

II.6 zk.	Mundu hobe baten aldeko manifestua 
<b>Deskribapena</b>	Gizarte-egoera ahulean dagoen kolektibo baten eskubideetan aurrera egiteko, hainbat hobekuntza aldarrikatzen dituen manifestu bat diseinatuko dugu, eta, horrela, guztiok izan behar genituzkeen oinarrizko eskubideak aztertuko ditugu.
<b>Teknika</b>	Talde txikitik: ikerketa, eta manifestua lantzea.
<b>Materialak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenagailuak eta Internet.</li> <li>- Manifestua egiteko kartelak: kartoi mehea, arkatz markatzaileak, guraizeak...</li> <li>- Bilatu aztertuko den kolektiboarekin lotutako giza eskubide bat, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalekoa:</li> </ul> <a href="http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq">http://www.ohchr.org/en/udhr/pages/language.aspx?langid=bsq</a>
<b>Funtsezko alderdiak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Kolektibo horiei buruz informazioa biltzeko auzo-elkarteetara edota gizarte-izaerako elkarte eta zerbitzuetara bisitak egin nahi badira, aurrez prestatu beharko dira: nola hurbilduko diren, nola azalduko dieten zer lan egiten ari diren, zer galdetu, informazioa nola bildu, edota jaso duten erantzunagatik eskerrak nola eman.</li> <li>– Definizioak idatziko ditugu.</li> </ul>	
<b>Garapena</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>– 4/5 laguneko taldeak osatuko dira, eta jarduera egiteko prozesua azalduko zaie. Oinarrizko eskubideen funtsezko agiri gisa, Giza Eskubideen Adierazpena emango zaie.</li> <li>– Hasteko, beraien ustez gure auzo eta herrietan gizarte-egoera ahulenean bizi diren kolektiboak identifikatu behar dituzte (gizon eta emakume etorkinen artean, emagalduen artean, homosexualen artean, mugikortasuna murriztuta duten pertsonen artean, lanik edo etxerik ez duten gazteen artean, ijitoen artean, familian ardurak dituzten pertsonen artean...). Kolektibo batzuek aukera gutxiago zergatik dituzten azalduko zaie, edo zerk eragozten dien beste kolektibo batzuek dituzten eskubideez edo egoerez gozatzea.</li> <li>– Kolektibo horiek apur bat ezagutu ondoren, bat aukeratuko dugu, taldean kolektibo horren ezaugarrietan sakontzeko. Interneten, inguruko elkarteetan, gizarte-zerbitzuetan eta abarretan bilduko dute informazioa.</li> <li>– Aukeratutako kolektibo hori ondo ezagutzen dutenean, “gizarte-egoera ahul” hori gainditzeko zer zailtasun dituzten ikertuko dute, eta kolektibo horretako kideen egoera hobetzeko egin daitezkeen ekintzak bilduko dituzte zerrenda batean. Bisita ditzaketan elkarte eta foroetan, argibide ugari aurkituko dituzte.</li> <li>– Zerrenda horrekin, manifestu bat prestatuko dute, eta ikastetxeko iragarki taulan, blogean, erakusketa batean, jolastokiko mitin batean, ikasgeletara egiten dituzten bisitetan eta abarretan erakuts dezakete.</li> </ul>	

# esperientziak

## Curriculumaren ikuspegi berritzailetatik, euskal kulturaz eta euskaraz haziz

**Guk geuk, euskal kulturaren eta euskararen baitako bidaideok, gure mikrokosmos horretan, elkarri eskerrak eta indarra ematen ez badizkiogu, zeinek egingo du bada?**

### OÑATIKO ELKAR HEZI IKASTETXEKO HEZKUNTZA KOMUNITATEA

Badira urteak gure Hezkuntza Proiektuaren ardatzetariko den Euskararen eta Euskal Kulturaren arloan, ekimen ugari garatuz dihardugula, beti ere ikuspuntu berritzaile eta dinamiko batetik, eta eskolaz kanpoko eragileekin batera arituz. Haietariko askotan, zuzendaritzaren onespenean eta babesaz zein lankideen elkarlanean, Andoni Salameroren izan dugu arima eta hatsa bizia. Haietako batzuk gainera, **hikhasi** aldizkariak argitaratu eman ditu; hala nola, olerkigintzaz (<http://www.hikhasi.com/artikulua/736>); irakurzaletasunaz (<http://www.hikhasi.com/artikulua/886>); Oñatiko Euskalkiaz (<http://www.hikhasi.com/artikulua/1014>) edota Ez dok Amairuren inguruan (<http://www.hikhasi.com/artikulua/1508>).

Oraingo honetan ere huraxe izan da aurkeztuko dugun proiektuaren bideratzaile eta koordinatzaile nagusia.

Hainbat urtetan lan egin ostean, iruditu zitzaigun ondo legokeela, batez ere euskararen alorrean (baina hein batean baita euskal kulturarenean), ikastetxean ditugun presentzia eta erabilera zein egiten dugun kude-

aketa kanpoko eragile batek nola baloratzen duen jakitea. Horregatik, erabaki genuen 2011-2012 ikasturtean Euskalitek eta Jaur-laritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sustatu eta kudeatzen zuten BIKAIN izeneko kanpo-ebaluazioan parte hartzea, eta Hizkuntza Planean txertatu genuen. Gure helburuetako bat, jakina, hizkuntza-kudeaketan arituak direnen eskutik hobetzeko aukerak identifikatzea eta ideiak jasotzea zen, eta baita, zergatik ez, egindako ibilbide osoaren perspek-

tiba hartzearekin batera, egindako ahaleginak eta erdietsitako lorpenak elkarri aitortzea ere, hortik abiatuta, orain eta gero ere elikatzeke.

Ebaluazio prozesua 2012-13 ikasturteko lehen hiruhilabetean burutu genuen, eta, emaitza oso pozgarria eta pizgarria izateaz gain, oso aberasgarria izan zen bukaeran eta, bereziki, prozesuan bertan. Orduan, Hizkuntza Batzordearen bilera batean, honako sentsazio edo ideia hau bururatu zitzaigun: guk, orain arte, euskararen bidea egin dugu, bai, baina ezinbesteko bidaideak izan ditugu beti gure alboan; ez al dute horiek ere, gure aldetik, halako aitortza edota ezagutza publikoa merezi, euskararen eta euskal kulturaren alde egin duten eta egiten duten lanagatik? Izan ere, guk geuk gure mikrokosmos horretan elkarri eskerrak eta indarra ematen ez badizkiogu, zeinek egingo



'Euskeria ixuketan' sariaren banaketa ekitaldia. Argazkia: Xabi Rezabal, Elkar Heziko gurasoa



**Jon Maiak, Alex Sardui eta Peio Ospitalek hartu zuten parte ikasleek prestatutako mahai-inguruan. Argazkia: Xabi Rezabal, Elkar Heziko gurasoa**

du? Orduan, ekitaldi bat antolatu behar genuela pentsatu eta erabaki genuen. Zer-nolakoa, ordea? Nork antolatua? ...

### **Ikuspegia eta ezaugarriak**

Luze hitz egin eta eztabaidatu ostean, hasierako ikuspegia zehaztu genuen, marko orokor gisa irizpide estetiko, pedagogiko eta soziolinguistikoak erabiliz. Funtsean, ezaugarri hauek izan zitzaizkion nahi genuen:

– Dinamikoa.

– Harridura sortzen duena, originala.

– Euskara kulturako beste esparru batzuekin lotzen duena (ingurumena, musika, literatura, antzeztea, kirola, bertsoak, zinema, umorea, marrazketa, artea ...).

– Prestakuntzan edota garapenean hezkuntza-komunitateko kide guztiek parte hartzeko modukoa: Hizkuntza Normal-kuntza Batzordea, ikasleak, familiak, irakasleak, herriko eragileak, herritik kanpoko eragileak ...

– Giro ez-akademikoan elkarrekin biltzea, komunikatzea eta jendarteko elkarre-ragina ahalbidetuko zuena.

– Emaitzak emaitza, egindako lana eta ibilbidea baten norbaiti eta norbaitzuei aitortzea eta errekonozitzea.

### **Ekina**

Ekiteko ordua heldu zenean, galdera hau sortu zenean: nork bideratu du dena? Andoniren erantzuna, berriz, hauxe izan zen: gaitasunen araberako curriculumarekin eta euskarakoarekin bikain lotzen denez, egokia izan zitekeen Batxilergoko 2. mailako ikasleei proposatzea, proiektu gisa lantzeko; hortaz, haiek arduraz zitezkeen antolakuntzaren egituraz, antolakuntzaz, garapenez eta ebaluazioaz, alderdi guzti-guztietatik begiratuta. Laguntza eskatzen zigitenerako, prest egon behar genuen gainerakook. Ekimena aurkeztu zuen Andonik, eta haiek onartu egin zuten. Euskarako irakasleak koordinatuko zuen dena.

Otsailaren 8an, Oñatiko Santa Ana Antzokian lehenengo, eta Pago Uso elkartearen gero, beraien jardunaren emaitzaz gozatu ahal izan zuten, Oñatiko eta kanpoko herritarren aurrean. Hiru hilabeteen, proiektu

hura lantzen jardun zuten, eta, mahai-ingurua baino areago, sormenean eta lankidetzan burutu zuten. Mahai-inguruan, protagonistak ikasleak eta Euskal Herrian euskaraz kultura lanetan eragile diren hiru pertsona izan ziren: Jon Maia bertsolaria, Gatibu taldeko ahotsa, Alex Sardui, eta Peio Ospital, Pantxoa eta Peio bikote famatuko kidea.

Mahai-ingurua prestatzeko prozesua gauzatzeko, ikasleak lantaldetan antolatuziren; bakoitzak bere ardurak hartu zituen horrela, baina talde guztien arteko koordinazioa bermatu egin zen. Honakook izan ziren lan-talde desberdinak:

1. Protokolo-taldea: gonbidatuengana jo, harrera egin, haiekin egon, zer behar zuten galdetu, aurkezpenak egin, ekitaldi osteko mokadu edo otamenaz arduratu, protokolo arauak aztertu ...

2. Komunikabide-taldea: komunikabideei, hots, egunkari, aldizkari, irrati zein telebistari, ikuskizunaren berri eman, prentsaurrekoa egin, zer, nola, noriesan kontuan hartuta...

3. Multimedia-taldea: prozesua gauza-

tzen zen heinean, ikaskideen lan-prozesuaren inguruko argazkiak eta irudiak hartu, ekitaldian atera beharreko irudiak atera...

4. Aurkezpen-taldea: hiru mahaikide, hiru aurkezle, eta musika edota bideoa jarriko zuen laugarren ikaskide bat, soinu-teknikariarekin lanean. Gaia mamitu, gidoia landu, prestatu, galderak egin, mahai-ingurua gidatu, bideoak eta irudiak hautatu, parte-hartzaileen jarduna koordinatu...

5. Finantziario-taldea: ekitaldia aurrera eramateko, enpresa zein erakundeekin harremanetan jartzeko bidea urratu, gutunak bidaliz, telefonoz harremanetan jarritz, bile-rak adostuz, gauzatuz...

6. Sormen artistikoko taldea: mahai-ingurua eta sariak emateko ekitaldia egoki gartzeko oholtza atondu, ukitu bereziekin jantzi, bestelako ekarpenak egin (galderak era originalean egin, ezusteko bitxiak sortu...), eta abar.

Galdera-sorta bat edota hausnartzeko gai-sorta bat atondu zuten, batez ere, ardatz honen inguruan: euskara sustatzeko garaian, badirudi larregi tematu garela eskolan (arlotan akademikoan), skholè edo aisialdia ahaztuta agian, eta, apika, eskolaren eta skholè edo aisialdi horren arteko elkarreaginean egon liteke gakoa. Hauek izan ziren galdera-ildoak:

– Erabilera-maila.

– Kalitatea (egokitasuna + zuzentasuna).

– Euskalkia eta batua (harremana, tentsioa).

-- Hiru horiek nola uztartzen dituzten, zer erabaki hartu duten, zergatik eta zertarako.

-- Desberdin jokatu beharko genukeen adinaren arabera.

-- Haien ustez, zeri eman beharko geniokeen lehenetsua eskolan.

– Zergatik eta noiz erabaki euskaraz aritzea (bizitza-lanbidea)?

– Berariazkoa eta kontzientea izan zen euskaraz aritzeko erabakia? Hau da, euskara sustatzea helburu zenuten, bere horretan?

– Estres linguistikorik sentitu duzue? Bideo txikia.

– Zein da zuen erdara nagusia? Zer sentimendu duzue harekiko, zer bizi-espere-tziarekin lotzen duzue? Hizkuntzen ekolo-giaz zer?



**Ikasleak lan-taldetan aritu dira. Argazkia: Elkar Heziko ikasleen multimedia -taldea**

– Gure inguruan, bikodeak nahasten omen dira (“euskañola”); zer iruditzen zaizue hori gertatzea? Eragin hori sistematiko ki gertatzea izan daiteke arazorik handiena, hau da, euskararen berezko baliabideak ez erabiltzea?

– “Euskañola” saihestu behar dugu? Ez da gauza bera Oñatin bizi den euskalduna edo Barakaldokoa.

– Euskañola (“*aber* zer gertatzen zaigun”), euskalglisha (“neska horrekin *feeling* ona dut”): gainbehera doan euskara kaskar baten aurrean gaudela iruditzen zaizue? Iparraldean bada antzeko ezer?

– Euskararen aurrean bolaluma gorri gehiegi erabili izan da, zuen ustez?

– Gerta daiteke norbaitzuek boteredunen euskaratzen hartzea euskara batua. Gazteek beren hizkuntza erabili nahi dutela iruditzen zaizue, alegia, hain akademikoa ez den hori?

– Nola indartu genezake sozialki euskara? Gai horretaz mintzatu behar dugula iruditzen zaizue? Jendea animatu behar dugu?

– “Aditza gaizki erabiltzen duzu”, “De-klina bidea ez duzu ondo erabiltzen” eta horrelako esaldiez zer iritzi duzue?

– Nahiz eskolan euskaraz ikasi, gazteen % 52ren ama hizkuntza euskara ez bada, zer bide edo estrategia erabili ahalko genuke, haiengan euskararekiko atxikimendu bizia sortzeko?

– Garbizalekeriak hizkuntza heriotzara eramanezake?

– Eta nola jokatu behar genuke etorki-ekin? Esperientziarik?

Gero, saioaren garapenean aurreikus

gabeko beste adar asko sortu ziren, jakina, eta halako diskurtso oso bat harilkatu zen.

Lantalde bakoitzak beren jardunari buruzko txostena prestatu behar izan du, eta, jardun horretan, zenbait aldi bereizi dira; lehenengoa, ekitaldi aurrekoa, alegia, nagusiki urtarrean egindako lanari dagokio: ikasleek gogoan izan dituzte otsaileko ekintza gauzatu ahal izateko beren lantaldeetan aurrekusi dituzten behar guztiak; bigarrenean, ekitaldiaren egunean, ikasleek ikasitakoa eta aurrez egituratutakoa *in situ* probatu eta entseatu dute. Hirugarren aldirian, ekitaldia amaitu ondorengoan, talde bakoitzak ondorioak atera ditu bere txostenean, eta ekitaldiaren eta prozesuaren inguruko hausnarketa egin du.

Ikasleek, eskolan IKTen esparruko kolaborazio-tresnak erabiliz (Google Apps, eta abar), unean uneko arazoari aurre egin die, batzuetan, ezagutzen ez zuten eremu batean esku-hutsik hasiz baina beren taldeko ikaskideekin, beste taldeetako ikasleekin zein irakaslearekin arazoaren inguruan mintzatuz, elkarlanean proiektu bateratu bat nola bidera zitekeen pentsatuz, arazoak ebatziz... Eskolan aurrez aurre aritzeko aukerarik ez zegoenean, eskolaz kanpo ikaskideen artean edo ikasleen eta irakasleen artean lanean aurrera egiteko aukera eman dute tresna horiek, besteak beste: behatzea, jarraipena egitea, doitzea... Eta alderdirik ahulena sendotzeko parada bermatu die horrek.

Era berean, ikasleek eta irakasleek gain, Elkar Hezi ikastetxeko Hizkuntza Normal-



kuntza Batzordeko taldeak ekarpen zuzenik ere egin du: irakaslearen eta batzordeko kideen artean, euskararen inguruko ekimen hau aurrera eramateko bilerak egin dira, zer behar izan daitezkeen ikusiz eta, beren babesa eskaintzeaz gain, hainbat lanetan lagunduz. Aurrekoaz gain, ezinbestekoa izan zen Lehen Hezkuntzako ikasleen partaidetza; izan ere, musikako irakaslearen gidaritzapean, ekitaldian kantatzeko abestiak prestatu zituzten, eta, unea iritsi zenean, haiek gonbidatuta bertara joan ziren guztiei eskaini zitzaizkien.

Ekitaldian ikusle eta entzule gisa parte hartzeaz gain, zenbait gurasok eta irakaslek bilkura eta ekitaldi osteko mokadua prestatu zuten, talde arduradunaren esanetara, eta jatorduan zehar trikitixa jo zuten ikasleen ardura ere hartu zuten.

Omendu eta sarituak alde batera utzita eta kanpoko eragileei dagokienez, azpimarratzekoa da Aiora Zulaika *Pirritx*-ek izan zuen parte-hartzea ere, bertaratzetik izan ez bazuen ere, bideo txiki bezain zoragarri bat

grabatu eta bidali baitzigun; horrez gain, *Zubaitzaren Soinua Kolektiboa* izeneko talde urretxuarra ere nabarmendu behar da, txalaparta saio hunkigarria eskaini baitzigun ekitaldia hasi baino lehen.

Bukaeran, “Euskeria ixuketan” sariak (Oñatiko euskalkian, euskara pizten, biziberritzen, esan nahi du) banatu zitzaizkien Oñatin zein beste herrietan euskararen alde suspertze-eta bultzatze-lanetan diharduten talde zein pertsoneri, eta horiei guztiei esker ona agertzeko ere balio izan zuen ekitaldiak. Hauek nabarmendu ziren bertan: Oñatiko Bedita Larrakoetxea Euskaltegia, Juanito Zelaia *Upain* (Oñatiko euskara eta euskal kulturaren sustatzailea), Marokotik etorritako oñatiar bihurtu den Michichou sendia, Senpereko Hatsa elkarteak Auxtin Zamora, Oñatiko Natur Eskola, Peio Ospital, Jon Maia, Alex Sardui, Ruper Ordorika (ez zen ekitaldian izan, grabazio-lanetan Azkaraten zegoelako), Gerardo Elortza (Oñatiko euskaltzale sutsu eta konprometitua), eta Josune Alberdi (Deba bailarako Berritzeguneko

Euskara Teknikaria).

### Pedagogia

Alderdi pedagogikotik aztertuta, agerikoa da *ikasteko eta irakasteko metodologia aktiboak* erabili direla etengabe; horrek aukera eman du, ia salbuespenik gabe, curriculumean zehaztutako oinarritzko gaitasun guztiak uneren batean lantzeko. Berdintsu, H. Gardnerren adimenei dagokienez: ohiko matematika/logo zentrismokeriaz harago, gainerako adimen guztiak erabili behar izan dira proiektuan (*Norberaren gorputza menperatzeko adimena edo adimen kinesiakoa*, *Pertsonen arteko harremanetarako adimena*, *Giza bizkuntzetarako adimena*, *Adimen logiko-matematikoa*, *Norberaren burua ezagutzeko eta kudeatzeko adimena*, *Espazioa ikusteko adimena*, *Musikarako adimena*, eta, landare bizien edertasuna go-goetsiz eta oholta apaintzeko erabiliz, baita *Naturarekiko adimena* ere); horrela, zenbait ikasleri aukera eman zaie beraien bestelako dohain, gustu eta gaitasun ezkutua aurkitzeko eta gozatzeko.

### Olerkia

#### ‘EUSKERIA IXUKETAN’

Askok badakite euskara dakitela.

Askok badakite euskara jakiteagatik jakitun direla.

Askok badakite dakitena dakitelako, jakinbide direla ezjakinentzako.

Askok badakite jakin-minduen jakin-nahia aiseago dela asetzen hizkuntza mintzatzuz, euskara dantzatzuz.

Askok badakite sortzez, maitatzeko eman zaiena ukatzuz, haien burua dutela urkatzen.

Askok badakite gaur ez bada etzi, etzi ez bada etzidamu, haien euskarak mintzatu ezean, ezerezean dituela utziko.

Askok badakite, badakite hori guztia,

horregatik, lanari ekinez, haiek dagite dakitena:

euskara hitz egin,

euskara elekatu,

euskaraz elikatu,

euskaraz zaletu,

euskaraz ase,

euskal hitzez,

euskal elez

egin ohi duten legez:

euskaltzaleek.

Andoni Salamero Alberdi

# galdeidazue

## Zer ekarpen egin dakioke euskal curriculumari mitologiaren alorretik



Euskal mitologia zertarako? Bi arrazoi eman daitezke euskal mitologia curriculumean sartzeko. Labur esanda, haren inguruan gizartean dagoen atzerapen egoera ulertezinari amaiera emateko, eta gure burua definitzeko, mitologia, herri-nortasuna eraikitzen duen eredu sorta delako, ipuin harrigarri bilduma soilaz haratago.

### Atzerapen egoera

Euskal mitologiaren ikerketan aurrerapauso nabarmenak izan badira ere, haien gizarteratzea hutsaren hurrenizazioa da, besteak beste, seguru asko, Unibertsitatean inoiz ez duelako leku bat merezi izan. Era grafikoan esanda: hizkuntzalaritzan Koldo Mitxelenaaren aroan bizi bagara ere, mitologiari Manuel Larramendiren garaian gaude oraindik. Ez da erraz ulertzen nola egon gaitezkeen honelako kinka tristean, baina egon ere, honelaxe gaude. Cerquand-ek eta Barandiaranek euskal mitologia biltzen egindako lan eskergak ondoren izan duen azterketa eta interpretazio lana ez da batera gizarteratu. Duela ia ehun urte bezala gaude. Eta hori bakarrik, besterik gabe, nahiko larria dela esango nuke.



**Juan Inazio HARTSUAGA**  
ANTROPOLOGOA

Hurrengo orrialdeko irudian, indusketan batean azaleratutako burnizko pieza batzuk ditugu, atera bezala bere horretan ezkerrean, eta trataera kimiko sofistikatu baten ondoren, jatorrizko itxura berreskuratuta, eskubian. Mila hitzek baino hobeki erakusten du adierazi nahi dudana. Gaur egun, batez besteko euskaldunak euskal mitologiari buruz dakiena, ezkerreko irudiaren pareko da: kontu zahar herdoildu batzuk, zahartasunaren lilura pizten dutenak,

zer diren edo zertarako ziren oso ondo jakin gabe. Herdoilaren miresmenean bizi gara, horren azpian edozer irudikatzea zilegi delarik, benetan zer den ez dakigulako. Herdoil zolda horrek dirauen artean, euskal mitologiak denetarako balio du idazle, sortzaile eta artisten eskuetan. Harrigarritasuna, misterio kutsua eta norberaren gustuko burutazioak (mitologia berriak) dira euskal mitologiak transmititzen digun guztia.

Aitzitik, euskal mitologia eskubiko irudiaren pareko adieraz daitezke: jaso den egoeran zituen herdoilak garbituta, pieza bakoitza zer den zehaztuta, zertarako balio zuen argituta, non eta noiz sortu zen, zerilotzen zitzaion eta nondik eta nola iritsi zen gure artera azalduta. Izan ere, euskal mitologia ez da eusko-labela, gehienetan modu horretan ulertzen bada ere. Ez da izate monolitikoa, ez da jatorri bakarrekoa. Hainbat jatorri, hainbat eragin, hainbat mezu, zenbaitetan kontraesankorrak, ditu bere baitan, azterketaren ondoren baino ikus ezin daitezkeenak. Euskaldunentzat kultura orokorreko izan behar litzatekeen hainbat gauza, bizpahiru adituk baino ez dakite. Esate baterako, *laminak* denek ezagunak

izan arren, ia inork ez daki *lamia*, *sorgin* hitzaren sinonimo moduan erabili zela Erdi Aro osoan, eta horren ondorioz, “paganoa” zen oro izendatu ohi zuela, eta ondorioz, izen horren azpian elkarren artean zer ikusirik ez duten lau edo bost izaki mitologiko diferente biltzen direla, eta boston ezaugarriak nahasirik gauza bakarra bailiran deskribatzen direla behin eta berriz. Mariren hainbat legenda, halaber, jatorrizko Mariren nortasunarekin kontraesanean daude eta geroztikako garapenak dira, baina, agian deigarrienak direlako, gehien aipatu eta nabarmentzen direnak dira. Edo nork daki Kixmi ospetsua, jentilen akaberaren mito jatorrean parasito moduan duela 400 urte inguru sartu zela eta geroztik arreta guztia bere gain erakartzea lortu duela, bere ostalari zahar garrantzitsua erabat itzalpean utziz?

Hiru adibide baino ez dira, baina bikain erakusten dute zenbateraino euskaldun ikasiak zeharo ezjakin diren euren mitologiari dagokionez. Horregatik besterik ez bada ere, merezi du euskal mitologia curriculumean sartzea. XXI mendean onartezina delako gure kulturaren arlo bat sozialki Larra mendiren aroan egotea oraindik. XXI mendeko batz besteko euskaldunak jakin behar luke euskal mitologiaren ziklo nagusiak zein diren, bertan zer den garrantzitsu eta zer den anekdota, zer den jaki eta zer den perrexil. Ziklo eta pertsonaiok non eta noiz sortu ziren, zein garaiko aztarna diren eta, beraz, zein kulturkidetzetan sartuta ibili ziren gure aurreko euskaldunak.

### Herri nortasuna eta munduan kokatzea

Aurrekoak bakarrik badira nahikoa arrazoi euskal mitologia, behar bezala eguneratuta, eskolan ikasgai jartzeko. Baina badira beste motako arrazoiak ere, eta askoz indartsuagoak gainera, aukera horren alde egiteko. Izan ere, mitologia ipuin harrigarri bilduma soila baino askoz gehiago baita: mitologia eredu sorta bat da, natura eta gizarte bizitza ulerbideratzeko erabili ohi dena, eta hein horretan, herri-nortasuna moldatzeko tresna nagusia. Geografia edo Historia gure burua munduan kokatzeko tresna diren hein berean, mitologiak ere kokatu egiten gaitu herri-nortasunen mapan: nondik gatozen esaten digu, nola bizi garen, zer

den guretzat garrantzitsu, non dauden gure nortasun-senideak, nolako izan nahi dugun... Mitologiak balioak transmititzen ditu, eta gaur egun bizi dugun “aukeren gizar-tean”, eginkizun dugun herri-nortasun berri-tua diseinatzeko behar ditugun gakoak eskaintzen dizkigu. Herri-gogoaren GPSa da, mapan kokatzen gaituena, nor garen eta zer garen esaten diguna.

Konparazio bat eginez, esan liteke Historia Mineralogiarri lotzen zaiola Mitologia Kimikari bezala. Mineral batek beti ditu hainbat elementu kimiko bere baitan. Beraz, nekez esan daiteke ezer mineral baten propietateei buruz, bere baitako elementu bakoitzak bereak dituelako. Ezin dugu hitz egin bere gogortasunaz, bere urtze tenperaturaz, bere osakera atomikoaz. Berdin gertatzen da herri-nortasuna Historiaren alorrean aztertzen saiatzen garenean. Historia gertakarien alorra da, eta alor hau aleatorio-egia izan ohi da eztabaidea zineko emaitzarik lortzeko. Horregatik, ez dago adostasun biderik “euskal berdintasunaz” debatitzen diharduten historialarien artean, esate baterako. Mitologia berriz, ereduaren alorra da, ez gertakariena. Eta denboraren eta Historiaren poderioz ereduaren mailan kontraesan apurrik ager badaiteke ere, hutsaren hurrena izan ohi da, eta argi eta garbi bereiz daiteke ereduak zer erakusten duen. Eredua elementu kimikoaren parekoa da. Purua da, bere abstraktutasunean homoginoa, aztertu egin daiteke eta eztabaidarik gabeko adostasunak lor daitezke bere propietate eta ezaugarrien inguruan. Esate baterako,

**Herdoilaren miresmenean bizi gara, horren azpian edozer irudikatzea zilegi delarik, benetan zer den ez dakigulako. Herdoil zolda horrek dirauen artean, euskal mitologiak denetarako balio du**



Historian oinarrituta nekez esan daiteke euskaldunak nolakoak diren, baina eredu mitologikoari begiratuta errazago esan daiteke euskaldunek nolakoak izan nahi duten, zein eredu jartzen dioten beren buruari.

Herri-nortasuna aipatzeak tabu kutsua izaten jarraitzen du, joan den mendeko *volksgeist* kontzeptua ulertzeko era traketsaren eraginez: modu arrazista, literal eta orokorrean ulertzen zen orduan, hots, alemaniar besteak baino bizkorragoak eta langilegoak dira (alemaniar arioak), judutarrak gaiztoak eta zikoitzak (judutar guztiak), espainiarrak eta italiarrak alferrak eta festazaleak (guzti-guztiak). Horren aurkako erreakzioz, orain ofizialki denak gara berdinak, eta ez dago herri nortasunik ezta herrien arteko diferentziarik ere. Baina errealitateak gezurtatu egiten digu behin eta berriz dog-



## Euskal mitologia interpretatua curriculumean



**sartzea urrats nagusia da herri-nortasun berriua, gaurko munduan bizitzeko egokitua, iraganaldiaren mirabe izango ez dena, eraikitzen hasteko**



ma berria: ustelkeria, elkartasuna, berdintasuna, ekimen-gaitasuna, ez dira neurri berean gertatzen leku guztietan, eta faktore sozio-ekonomikoek bakarrik ezin dute ulertarazi diferentzia horiek zergatik agertzen diren. Hor sartzen gara ereduaren eta balioen erresuman, mitologiaren esparruan.

Hildako baten beilara bazoaz Azpeitian, zeinen gizon umila eta zeinen langile fina zen entzungo duzu zendu berriaz. Sevillan berriz, zenbat diru zuen eta zer artea zuen kantari edo pasadizoak kontatzen nabarmenduko dizute. Eta horrek ez du adierazi nahi sevillarra azpeitiarra baino alferragoa zenik (gerta liteke aurkakoa izatea). Kultura bakoitzean eredutasuna non ipintzen den adierazten du, besterik gabe. Langile izatea ohorezko aipamena ohi da euskaldunen artean, baina desohorezko izan daiteke Sevillan, ergeltsunaren pareko. Euskaldun asko egongo dira sevillar asko baino alferragoak zalantzarik gabe, baina langile izatea ia lotsagarri den kulturaren, estatistikoki sarriago gertatuko dira ustelkeria kasuak, langile izatea ohoregarri den kulturaren baino. Arrazismo izpirik gabe, ereduaren mailan, estatistikoki formulaturiko *herri-nortasuna* edozein hezkuntza sistemak aintzat hartu beharreko aldagaia da.

Ez dut uste exajerazio bat denik esatea gure herri-nortasunaren inguruan konfusio handia dugula une honetan. Azken lau hamarkadetan gertatutako aldaketa kultural azkar eta indartsuek, noranahiko eredu sikulusaltsa eragin dute bazter guztietan. Horri erantzen badiogu gure herriak nozitu di-

tuen egoera bereziak, ez da harrigarria gure artean suma daitekeen noraeza. Premiazkoa da nora jo nahi dugun erabakitzea, eta horrelakoetan bereziki lagungarri izan ohi da nondik gatozen jakitea.

Euskal mitologia zer den ongi ulertzen denean, ikusten dugu, adibidez, euskal nortasunak eztanda nola egin duen eta horren puxkak han eta hemen non dabilzan barreiatuta eredu arrotzen artean. Ingurua ulertzen laguntzeko tresna zorrotza da, gizarte mailako jarrera eta joeren artean, zer nondik datorren antzemateko paregabea. Alderdi politiko bateko buruzagitzatik enpresa oligopolista bateko buruzagitzara ondorio sozialarririk gabe jauzi egin daitekeela egiaztatzea, edo beste alderdi politiko baten iraultza bolivarianoaren eredutzat proposatzen digula ikustea, noraeza horren bi adibide baino ez dira. Krisi beraren adibideak lirateke bideak zaintzeko bolondres faltan hainbat txirrindulari-lasterketa bertan behera geratzea, diru-ordainik gabeko lanean oinarrituriko hainbat ekimenen desagertzea, edo frontoiei pilotariaren izenak jartzen hastea. Orotariko anitz ereduaren erresultantea da gaurko gizarteak, eta zer nondik datorren ongi bereiztea arrunt lagungarria da, nork bere jarrerak eta erabakiak hartzeko garaian.

Euskal mitologia interpretatuaren irakurketak badu zer erakutsia kinka honetan. Esate baterako, lehen lekzioa da ez dugula eredu baten menpe, esklabu egon behar. Euskal mitologia ez da eusko-labela, ares-tian esan bezala, ez da monolitikoa eta alda-

ezina, ez da jatorri bakarrekoa, eta hein handi batean ez da euskaldunena bakarrik. Historia luze bat erakusten digu, hango eta hemengo ereduak eragindako historia. Hainbat kulturkidetza zabal erakusten digun historia. Nortasun berri bat asmatzea, diseinatzea, zilegi egiten duen mitologia da nolabait, eta horrek asko poztzen nau ni behinik behin, tradizioaren zama arintzea ahalbidetzen duen heinean.

Gure Mari gaur egungo Turkiako Anatoliatik datorrela jakiteak, esate baterako, dimentsio berri bat ematen dio euskal izateari, gaur egungo munduak eskatzen duen irekitasunari bikain egokitzen zaiona. Askorentzat euskaltasunaren paradigma dena, Turkiatik etorri zen gure artean bizitzera. Zoragarria gure artean kanpotar senti daitekeen edonorentzat, eta zoragarria euskaldun izateko paleolitoari loturik egotea derrigorrezko ez dela sinetsi nahi dugunontzat.

Mariren jatorria askorentzat harrigarri gertatuko bada ere, hori ez da euskal mitologiak gorderik duen ustekabe bakarra. Herri baten nortasuna ez da berdín mantentzen batere aldaketarik gabe denbora luzean. Aspektu batzuek irau egiten dute, baina beste batzuk aldatu egiten dira. Esate baterako, azken mendeotako euskal paradigmaren hainbat ezaugarriren espainiar jatorria maisuki deskribatu zigun Joxe Azurmendik *Espainolak eta euskaldunak* liburuan. Hein honetan, euskal baserriar elizkoien ahotik bildutako mitologian, jainkozkorik gabeko mundu “errenazentista” baten

arrastoak gorde direla jakitea, Mariren jatorria bezain harrigarri gerta daiteke horren berri ez duenarentzat. Mariren munduan ez dago gizakiak menpean hartzen dituen jainkorik, eta gizakiak askatasun ontologiko osoan bizi dira, euren patuaren jabe.

Askatasun horren baitan, euskal mitologiaren ereduen azterketa kritikoa egin dezakegu guk ere. Bertan ageri diren balio asko goresgarriak dira, baina beste batzuk ez hainbeste, egungo ikuspuntutik. Gaurko gizartean garrantzitsuak diren hainbat eta hainbat aspekturen ingurugogoeta egiteko bidea ematen digu. Gogoeta librea, herri nortasun berritua osatzeko, onesgarri ikusten duguna hartu eta gaitzesgarri irizten dioguna baztertzeko. Norbanakoaren izatea eta talde-izateari buruzko gogoeta, ekimenaren inguruko gogoeta, lanaren inguruko gogoeta, askatasunaren ingurukoa, zintzotasunaren ingurukoa, ekologiaren ingurukoa, zorianaren ingurukoa... Hauei guztiei buruzko argibideak aurki ditzakegu mitologian, izan ere, honelako gogoetatik sortua baita mitologia bera.

Mitologiaren azterketak erakusten duen beste irakaspen interesgarria zera da, eredu-emaile izateko, garaile, erreferente izan behar zarela lehendabizi. Hori ez da,

berez, gaurko kontua, aspaldikoa baizik. Alferrik da eredu onak transmititu nahi izatea, eredu horien erakuslea entzulegoa liluratzeko gauza ez bada lehenik eta behin. Hits eta ulertezin irizten bazaio ere, egitasmo goresgarri baten aldeko diru bilketa egin behar denean, ez dira horretan diharduten gizaki eredugarriak agertzen, saltsa guztien perxila diren hainbat ospeskila baizik. Eta hauei esker biltzen da diru gehiago, gainera. Esan bezala, aspaldiko kontua da.

Neolitikoko mitologian ere gauza bera aurki dezakegu jentilen legendetan. Lan gogor eskerga eguneroko ogi zuten gizaki haientzat, ezer ez zitekeen liluragarriago, nekerik gabe eta erdi jolasean zuhaitzak esku bakarrez erauzi eta harritzarrak mendiz mendi jaurtitzen zituzten izaki harrigarri haiek baino. Aurrena lilura sortu eta hurrena eredu ona erakutsi. Horrela izan da beti eta horrela izango da aurrerantzean ere.

Euskal mitologian agertzen diren eredu onak, erreferente arrakastatsuekin lotuta erakutsi behar dira. Jentilek ez dute gaur egun iraganean izan ohi zuten liluratzeko gaitasuna, eta horregatik, haiek erakusten duten elkartasun eta zintzotasun eredu, gaur egungo erreferentzia arrakastatsuekin lotuta adierazi behar da: jentilen mitologia

gorde den herrietan (Europa Atlantikoan), zintzotasun eta elkartasun ereduak inon baino zabaldago daude, eta herri aurreratu eta aberatsenak dira, elkarlana eta konfiantza arrakasta ekonomikoaren oinarria direlako. Euren mitologietan boterea eta maltzurkeriaren gorazarrea duten herrietan berri, maizago aurkitzen ahal da gizarte mailakatzeko nabarmenagoa, aberats kopuru txikia, jende txiro eta ezjakin ugariagoa, eta oro har, gizarte pobregoa eta atzeratuagoa.

Euskal mitologia interpretatua curriculumean sartzea, herri-nortasun berritua eraikitzen hasteko urrats nagusia da. Herri-nortasun berritua, gaurko munduan bizitzeko egokitua, gogoeta zabal baten emaitza izango dena eta iraganaldiaren mirabe izango ez dena. Iraganaldia ere ez delako bakarra, anitza baizik. Sudango atsotitz batek dioen bezala, sustraiak eta hegoak, biak izango dituena.

Herri-nortasuna apurtu eta desegiten hasten denean, oraintxe bertan gertatzen ari zaigun moduan, herri bezala desagertzearen ataria dela esan daiteke. Lehentasun larriko kontua da gure garaia eta gure gizarteari dagokion herri-nortasun berritua osatzea, euskal mitologia interpretatuaren laguntzarekin.

## Parte hartu, partekatu

Hezitzaileon ekarpenak sustatu nahi ditu *hik hasi*-k.

Zure esperientziaren berri emateko bidaliezazkiguzu ondokoak:

- Testua, bere izenburu eta sarrerarekin, eta azalpen teoriko eta ondorioekin.
- Esperientziaren hiruzpalau argazki (baimenarekin).

**aldizkaria@hikhasi.com** helbidera bidali

# Herri hezitzailea, eskola herritarra jardunaldiak



Maiatzaren 10ean eta 11n Donostian. Gonbidatu gisa, **Francesco TONUCCI** pedagogoa eta "Haurren hiria" egitasmoaren sortzaile italiarra izango da bi egunetan.

Euskal Herriko hainbat eskolatako eta herritako esperientziak aurkeztuko dira.

**Nori zuzendua:** irakasleei, hezitzaileei, Udaletako zinegotziei eta teknikariei (berdintasuna, euskara, lurralde antolamendua...) gurasoei, arkitektoei eta heziketan interesa duen edonori zuzendutako jardunaldiak dira.



Maiatzaren 10ean:

## Heziketa ardatz duen HERRIA

- Euskal Herriko testuingurua: Lorea AGIRRE.
- Haurren hiria: Francesco TONUCCI. "Haurren hiria" proiektuaren sortzailea.
- Euskal Herriko hainbat herritan egiten ari diren esperientzien aurkezpenak.

Maiatzaren 11n:

## Herrira begiratzen duen ESKOLA

- Hiri-ereduak hezkuntzan duen eragina: Koldo TELLERIA (*Hiria* kolektiboa).
- Guztientzako eskola: Francesco TONUCCI
- Euskal Herriko hainbat eskolatan egiten ari diren esperientzien aurkezpenak.



Informazioa eta izena emateko aukera zabalik dago

**www.hikhasi.com** helbidean

# argitalpenak



## Altxor bat aurkituko dugu

Janosch

PAMIELA / KALANDRAKA

Animalia gizatiartuak protagonista dituten istorio honetan adiskidetasunaren balioa goraiatzen du Janoschek. Hartzak eta tigreak ikasiko dute bizitzako egiazko altxorrak ez daudela beti diruan, ez eta gauza materialetan ere. Haur-estiloko ilustrazio alai eta koloretsu, klasiko eta lauen bidez, Janoschen kontakizun honi umorea dario. •




## Lata baten gorabeherak

Begoña Ibarrola / Teresa Novoa

ELKAR

Lata baten gorabeherak kontatzen dira ipuin honetan. Hasieran, tomate-lata bat zen, baina gero, pilota, itsulapikoa, potoa eta abar bihurtu zen. Lata hura jabez jabe eta etxez etxe ibiltzen zen, pozik beti. Ilusioari buruzko ipuin bat da Begoña Ibarrolak idatzi eta Miren Agur Meabek itzultitakoa. •



## Oihaneke epailea

J. M. Olaizola 'Txiliku' / Aitziber Alonso

ELKAR

Gaurdaino iritsi diren istorio hauei esker, ezagutuko dugu basoko zuhaitzek nola hitz egiten zieten goroldioari eta iratzeari, animaliek nola galdu zuten mintzatzeko ahalmena eta baita ere nola iritsi zen uretako bufalao oihaneke animalia guztien epaile izatera. •



## Sufrearen lurrin fina

Pierre Bottero

IBAIZABAL

Ombek narkotrafiko-kontuetan dabilen gizotso talde baten aurka borrokatu behar du. Taldea aurkitzen duenean, gizotso baten bizitza salbatzen du, eta harekin maitemintzen da. Bien artean, taldea legez kontrako negozioetan sartu duen gizotsoari li-dergoa kentzen ahaleginduko dira. Garaitu egiten dute, baina gizotsoak ez du Ombe gehiago ikusi nahi. •



## Lauviaren giltza

Ivan Landa

EREIN

Aski litzateke haur baten irudimena denon artean mundu hobe eraikitzeko, baina Lurreko jakintsu guztiak ere ez dira nahikoa gizadi honen zelatan dauden gaitz guztiei aurre egiteko. Nola lortu irudimenaren mundu sinestezin horien atea zabaltzen duen giltza? Sar zaitez Adarekin batera abentura zoragarri honetan, haren irudimenaren mundu oparo eta berezian murgilduz. •



## Agerian utzitako ikastetxe-zuzendariaren kasua

Joachim Friedrich

GILTZA

Txarlik ametsetan jarraitzen du: kasu handi bat argitu nahi du bere detektibe-agentziarekin, benetan garrantzitsua izango den kasu bat. Baina, azkenaldi honetan, beste zerbaitekin ere egiten du amets...eta bere arrebaren lagun ezin ederragoak du horren errua. •

# ... nora joango gara?

## GASTEIZKO SANTA MARIA KATEDRALA Lurpeko txoko sakonenetik, hiriaren talaiara

**Gasteiz hiriaren jatorria eta historia hobeto ezagutzeko eta ulertzeko giltzarria da Santa Maria katedrala. XIV. mendean eraikia, 2000. urtean tenpluaren zaharberritze lanari ekin zioten, baina katedraleko ateak irekita utzi zituzten, obrak egin ahala herritarren bisitak jasotzeko. Geroztik, milioi bat bisitari baino gehiago hartu ditu katedralak. Haurrek ere eraikin gotikoaren sekretuak ezagutu ditzakete, bisita didaktikoen bidez zein berriki kaleratu duten liburu baten bidez.**

*Katu: bazen behin...* Gasteizen izenburua du Santa Maria Katedrala Fundazioak martxoan aurkeztu zuen liburuak. Ainhoa Gomezek, Gasteizko Irakasle-eskolako irakasleak, haurrentzat idatzitako liburu sail baten lehen alea da, katedralaren sekretuak gazte-enei erakusteko sortua. *Katu* izeneko katu urdin batek bizitako abenturen bidez, tenpluaren historia, eraikitzea, arazoak eta zaharberritzea ezagutuko ditu haurrak. Hala ere, katedralarekin loturiko beste hainbat alderdi erakutsiko ditu liburu-bilduma horrek: XVIII. mendeko gasteiztarren bizi-modua, herrixkak izandako bilakaera, Erdi Aroko defentsa-sistemak, arkeologiaren eta zaharberritzearen funtsak... Azalpenak irakurtzeaz gain, testuan txertatutako hainbat ariketa egin ahal izango dituzte haurrek,



edukia berrikusi eta asimilatzeko modu erraz eta dibertigarrian. Ismael Garcia EHUko Historia-doktoreak egin ditu ilustrazioak. Liburua Bisitariak Hartzeko Zentroan eros daiteke 18 eurotan, eta [www.catedralvitoria.com](http://www.catedralvitoria.com) helbidetik jaitsi daiteke doan.

Santa Maria katedralaren garrantzi historiko eta artistikoa haurrengana gerturatzeko, Fundazioak antolatutako ekimene-tako bat da *Katu bazen behin...* Gasteizen liburu didaktikoa. Horrez gain, *Didaktikatedrala* egitarauan bisita gidatuak antolatzen ditu ikasleentzat, Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailarekin lankidetzan. Mailaren arabera –Lehen Hezkuntzako lehen mailatik seiga-

rren mailara– eta gaika banatutako bisitak dira (elizpea, beirateak, Gasteizko etxolak, harresiak, errondabidea, merkataritza-hiria, katedrala...), eta bukaeran, bisitarekin lotutako zenbait lantegi egiten dira. Gai bakoitza lantzeko, ikus-entzunezko materiala erabiltzen dute: *power point* programaz egindako aurkezpenak, DVDak...

Bestalde, haurrei eskainitako bisita gidatuak antolatzen ditu Fundazioak larunbat-arratsaldeetan (16:15ean hasten dira). Kasu horretan, helduen ibilbide berbera egiten dute umeez katedralean zehar, baina azalpen teknikoak baztertu eta haurren gaitasunera egokitutako hizkuntza erabiltzen dute gidariak, txikiak ere arazorik gabe uler





eta goza dezaten bisita.

Bisita horiek katedral gotikoaren erai-kuntzari buruzko ezagutza sakontzeko baliu dute. Ibilaldi horretan, Santa Maria Katedralaren eraikuntza-faseak, mendeetan izan dituen arazoak, egin diren ikerketa-lan arkeologikoak eta arkitektonikoak eta etorkizuneko proiektuak ezagutzen ditu bisitariak. Besteak beste, zimenduak indartzeko eta katedralaren zoru berria eraikitzeko erabilitako hargintza-lanen bilakaera jarrai dezake; kanpoko harresiaren erronda-pasabidea eta triforioa bisita ditzake; eta katedralaren elizpean egindako zaharberritzea ikus dezake. Halaber, induskatutako eremuen gainean eraikitako zoru berria zapaldu eta rococo estiloko sakristia bertatik bertara ikusteko aukera ere badu bisitariak. Katedralaz gain, dorrearen bisita eginez gero, eraikina oso-osorik ikus dezake, lurpeko txoko sakonenetatik hiriaren talaiara arte. Izan ere, Gasteizko lekuri garaienean kokatuta dago katedrala, eta, bere dorretik –60 metroko luzera du–, alde zaharraren, hirigunearen eta Arabako Lautadaren bistarik onenaz goza dezake bisitariak.

Katedralaren gun e ikusgarrietako bat Argiaren Elizpea da. Paterninako Kape-ra atrioaren aurrealdean kokatuta dago, eta bideo digitaleko proiektzio-sistema sofistikatuari esker, XVI. eta XX. mendeen arteko polikromiaren bilakaera erakusten du. Argiz eta kolorez beteriko ikuskizuna da, Europan bakarra.

Katedralaz gain, XI. mendean Gasteizko herrixka inguratu zuen harresia ere bisita daiteke. Urte luzez lur azpian edo kale estuetan artean gordeta egon da harresia; jatorrizkoak 900 metroko perimetroa zuen, baina, gauregun, 450 baino ez daude zutik. Katedralaren zein harresiaren bisita egiteko beharrezkoa da hitzordua eskatzea. ¥

## SANTA MARIA KATEDRALA

Aiztogile, 95

01001 Gasteiz

Tel.: 945 25 51 35

Erreserbak egiteko: [visitas@catedralvitoria.com](mailto:visitas@catedralvitoria.com)

[www.catedralvitoria.com](http://www.catedralvitoria.com)



## BISITEN EGITARAUA

**Katedrala:** Ordubeteko iraupena. Eskola-taldeak (gehienez 20 lagun): 70€

**Haur bisitak:** Ordubeteko iraupena. Eskola-taldeak (gehienez 20 lagun): 70€

**Santa Maria 1813:** 75 minutuko iraupena. Bisitak 12:45ean eta 17:30ean hasten dira. Eskola-taldeak (gehienez 20 lagun): 85€

**Harresia:** Ordubeteko iraupena. Eskola-taldeak (gehienez 20 lagun): 40€

**Katedrala + Dorrea:** 75 minutuko iraupena. Eskola-taldeak (gehienez 20 lagun): 85€

**Katedrala + Harresia:** 90 minutuko iraupena. Eskola-taldeak (gehienez 20 lagun): 75€

## Sorkuntzarako gogoia pizten duen katedrala

Ezustez beteriko prozesu bizi eta irekia izan da Gasteizko Santa Maria katedralaren zaharberritzea. Lanen barruan egindako indusketa arkeologikoez Gasteizen historiari eta Erdi Aroko hiriguneari buruzko hainbat datu berri ezagutzea ahalbidetu dute, eta hainbat teoria aldarazi dituzte. Esaterako, jakin da uste baino 400 urte zaharragoa dela hiria. Izan ere, katedrala eraikita dagoen muinoan herrixka bat zegoen VIII. mendean, Gasteiz herrixka, eta haren gainean fundatu zuen Nafarroako Antso Jakitunak, 1181. urtean, Nova Victoria hiria. Halaber, katedrala lehengoratzeko lanak hasi eta berehala, hiriko harresiaren aztarnak aurkitu zituzten lur azpian, eta horri esker, jakin ahal izan da XI. mendean eraikia izan zela, uste baino ehun urte lehenago. Katedrala zaharberritzeko lanen ereduak arkeologo, arkitektu eta historialari askoren goraiapamena jaso du, eta turistak erakartzeko amu bilakatu da. Halaber, katedrala bisitatu ostean, hainbat idazlek hari buruz idaztea erabaki dute; horien artean, Toti Martínez de Lezea eta Paulo Coelho daude. Baina, batez ere, Ken Follett-en kasua da ezaguna. Gasteizko katedralan oinarritu zen *The World Without End* liburua idazteko, eta hirian bertan aurkeztu zuen.



# atzeko atetik



**Alberto LADRON ARANA**

Idazlea

Txikitatik atsegin izan dut irakurtzea. Aitari nobelak lapurto, irakurri, eta gehienetan birrindu egiten nituen. Ez galdetu azken urrats horretaz, nik ere ez baitakit zergatik egiten nuen. Behar bada 70eko hamarkadako liburuak ez ziren nik uste bezain sendoak.

Eskolan ez zuten gure irakurzaletasuna bultzatzeko ahaleginik txikiena ere egin. Irakasleek nahiko lan zuten bizi-

## Sistemak huts

rauteko orduko Eskola Nazionalaren anabasan. Hala ere, nire ikasgelako gehienok zer edo zer irakurtzen genuen. Komikiak gehienbat –Asterix, Mortadelo, Tintin eta abar–, baita garaiko *best-seller*-ak ere: Sandokan, Ben Hur, Enid Blytoren nobelak... Hori guztia, inongo bultzadarik gabe sistemaren aldetik.

Francoren hezkuntza sisteman hezi ninduten. “*Una, grande y libre*” eta hori guztia. Hala ere, gutako gehienekin ez zuten emaitza handirik lortu. Nafarroako belaunaldirik abertzaleena, sinesgabeena eta antimilitaristena izan ginen.

Sistemak huts egin zuen.

Geroago, institutuan eta karreran, klasiko espainiarrak irakurrarazten zizkiguten. Badakizue, Lope, Calderón eta enparauak. Irakurketa behartua amaitzen nuenean, S. King eta Tolkienen nobeletan murgiltzen nintzen, plazer handiz murgildu ere. Sekula ez naiz berriz hurbildu ustezko klasiko haiengana.

Berriz ere, sistemak ez zuen funtzionatu... egun funtzionatzen ez duen bezala.

Ikusten duzuen bezala, ez dut fede handirik hezkuntza sisteman. Badakit hau erratea ez dela oso txukuna hezkuntza aldizkari batean, baina, zer nahi duzue, zerbaitek huts egin zuen nire heziketan.



“Ekoizle eta kontsumitzaile izateko hezten gaituzte, ez pertsona aske izateko”

Jose Luis Sampedro



# 4. **Hazi Hezi** kalean da: urtea egin du. Zurekin eta zuri esker jarraituko du.



**Egin zaitez harpidedun!**

**Hazi Hezi** etxerako heziketa aldizkariaren lau zenbaki etxean jaso ditzakezu, 20 euroren truke\*

**943 371 408**

**www.hikhasi.com**

*\*hik hasi-ren harpidedunek prezio berezia daukate*



# 2013



## XIV. HIK HASI Udako Topaketak

### hh

Donostia. Uztailak 3, 4 eta 5



**Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 31**

Psikomotrizitatea ♦ Pikler-Lóczyko hezitzailea ♦ Ametsak eta entrenamendu mentala ♦ Etxerako lanak ♦ Elkarrekin pentsatu, sentitu eta bizi ♦ Besteak sendatzeko ahalmena ♦ Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan ♦  
**Hezitzaileon erronka: ikasleen heziketa** ♦ Kultur aniztasunean ikastea eta irakastea ♦ Eskolako bizipenak, hizkuntza-ideologia eta jarreraren eraldatzaile  
 ♦ Nafarroa-Euskal Herriko historia ♦ 'Coaching' ♦ Bideoa: editatzen ikasi ♦ 'Kamishibai' tailerra ♦ Haurrentzako masajea ♦ Krisialdirako plastika tailerra  
 ♦ Espresio tailerra: sortuz sentitu, sentituz sortu ♦ Ahotsaren erabilera egokia  
 ♦ Txantxarien jolasak ♦ Biodantza

**Informazioa: [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com) edo 943 371 408**